

# ARRASATE PRESS

1992ko abenduak 18

174. zenb.

## HATOR-HATOR!



# Gabonak 92



# DUO DISEÑO



- **OBRAK**
- **BARRUAK**
- **BULEGO-ALTZARIAK**
- **PROIEKTUAK**
- **OSAGARRIAK**

Iturriotz, 21 ARRASATE Tfnoa: 79 28 86

mokasin


Zapatak eta osagarriak

Kontzeziño, 6  
Tfnoa: 76 06 78  
ARRASATE

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99


Zorionak  
Idoia eta  
Joxe  
Juani!

OTXOA

Hazi aukeratuak,  
pentsuak eta  
fitosanitarioakMondragones, 1 ARRASATE  
Tfnoa: 79 86 70

Eguberri on!

Ondo pasatu Santamasak!

OLA-OSTE  
KIROL DENDABizkaia Etorb. 10  
Tfnoa: 79 65 34  
ARRASATEAldizkari honek  
Eusko Jaurilaritzako Kultura eta  
Turismo Sallaren laguntza jaso du

# Gabonak bistan

**D**itxosozko 1992. urtea bere azketan dago eta Bartzelonako Joko Olimpiko eta Sevillako Expoaren zurrumbiloen ondoren, Gabon atarian aurkitzen gara.

Gabonak betidanik famili giroan ospatzeko egunak iruditu izan zaizkit, baina hau ere poliki poliki aldatzen ari da eta lehengo ohitura zaharrak alde batera utzita, gero eta gehiago dira Canarietako edo Caribe aldeko epeltasunaren edota gailur txurietara eskiak oinetan dituztela joaten direnak.

Aitortu beharra daukat niretzat ere Gabonak nabarmen aldatu direla atzera eginez gero. Nire haurtzaroko Gabonen oroitzapenek, orduko xarma hura berreskuratzeko gogoia sortarazten didate.

Gogoratzen ditut Gabon Gabeko ilunkarra haiek sukaldeko epeltasunean: anai-arrebok aitarekin batera arbola eta jaiotza apaintzen, bitartean ama lapiko artean aurrera eta atzera afari goxoa prestatzen, aza egosien eta konpotaren usaina, Loiola Herri Irratiko sukaldarien errezetak, gabon kantak eta iragarkiak irudi honen osagarri. Afal osteko Gabon kantak, karta jokuak... Errege egun aurreko egunetako irrika bazter guztiak arakutzen zerbait aurkitzeko itxaropenarekin, eta zer esanik ez, bezperako ilusioa; han uzten genuen danok zapata pare garbi baino garbiago, disdiratsu, sukaldean. Sekula ez zitzaigun falta izan txokolatezko erregetxo edo mazapanezko suge txikia.

Orain aldiz, abendua hasi orduko ia amets gaiztoaren pare agertzen zaizkit Gabonak, eta errua neurea, horrenbeste konplikazio erosketak direla eta, opariak direla eta, loteria...


Baina gaur egun Gabonak eta kontsumismoak banaezinak dirudite.

Kontua, erosteak, gastatzea, kontsumitzea da, eta batzuk denetik soberan daukagun artean, beste asko gosez hiltzen ari da edo miseria gorrian bizi izaten, bizi hitza kasu honetan erabilgarria gerta ez daitekeen arren.

Kontraesanekin jarraituz, nola uler daiteke horrenbeste sofistrazio indarkeria hutsan oinarritzen diren haur jostailuetan, pakea hain urri eta era berean hain beharrezko dugun gure mundu honetan. Zertan geratzen ote da askok eta askok horren maiz aldarrikatzen dugun pakea, agintarien aldetik ez dut somatzen inolako neuririk bizi dugun egoera hobetzeko; gehienetan indarrak ahotik hanka egiten digula deritzot.

Baina, hala ere, denoi jai zoriontsuak eta urte berri on eta paketsua opa dizkizuet.

IHINTZ



Pixtu

## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Oliden (77 06 90). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Golo Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiquiren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Aranburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoia, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS  
paper birziklatuan egiten da.

**Azala:** Agurtzane Urteaga. 9 urte.  
4. maila. San Frantzisko Xabier Ikastolako.

Lehenengo  
Euskal  
Hiztegi  
Enziklopedikoa

**LUR**

Argitaletxea

**VE ECUADOR**

**Bidaiak**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06



**Alkoholarekin arazoak daukazazu?**

**Agian, "Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!**

**Alkoholiko Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa  
(Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38

**ARAMAIO okindegia**

**Maisu Guridi, 3  
Tfnoa: 79 36 46**



Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta  
larruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

•••••  
**Ferrerias, arotzak eta zurginak**

**J**oan den asteartean (abenduak 2) Udaletxe-ko Pleno Aretoan gauza baten (behintzat) hanka sartu nuen susmoa dut eta hori zuzentzera noa.

Gure herriko kaleen izenez ari ginelarik (*Ferrerias, Zurginkantoi...*) uste dut esan nuela zurgin hitzak eskuarki duen esanahiaz gain ("carpintero") beste hau ere izan duela inoiz, hots: "herrero". Eta hori horrela ez delakoan nago. Caro Barojak hala aitortzen badu ere ("(...) hoy se usa de la voz "surguin" y no sólo se habla del cantón referido, sino también de "Surgincale", como equivalente a la Calle de las Herrerías") ez zait iruditzen zurgin gaztelanierazko "herrero"-rekin identifikatu dezakegunik. Azkueren eta Retanaren hitzetan ere zurgin hitzak "carpintero" adiera du soilik ia euskalki guztietan.

Ez dut dudan jartzen solaskide batek esandakoa, alegia, *Ferrerias* kaleari *Zurginkantoi* edo *Zurginkale?*) deitzen diola inguruko jendeak.

Guztiarekin ere, nik han esandakoa mantentzen dut: *Zurginkantoi* jatorriz Parrokia ondokik Etixerat taberna ondoko "ate"raino doan kantoia delakoan nago, eta *Ferrerias* kalearen antzinako izena *Arozkale* da, hemen arotz hitzak "herrero" adiera duelarik, nahiz eta mondra-

goetarrek gaur egun "zurgin" edo "carpintero" esanahiaz erabili.

Badakit *Ferrerias* izenak historia luzea duela (eta agian bere xarma ere izango du izen honek) eta gatxa dela jendearen ohiturak aldatzea, baina inork ez dezala pentsa *Arozkale* leku-izena burubero baten azken orduko asma-kizuna denik, lehenean su-traiak dituen toponimo polit eta jatorra baizik. Bakoitzari berea...

Bidenabar, bi mila esker bi ordutako "txapa" agoan-tatu zenutenoi.

**TXIPI**

•••••  
**Zaindu Natura Eguberrian!**

**E**gun hauetan gure etxea apaintzeko, naturaren aurka egiten ditugun erasoak salatzen eta ahal dugun neurrian informatu eta sentsibilizatzekotan, zuek guztiongan jotzen dugu.

Gabonetan erabiltzen diren espezieen artean hauek daude:

- Gorostiak, aurkitzen den egoera larria dela eta, orain dela zenbait urtetatik Legislazioaren babesa jaso du: 262/1983 Dekretuan, Basa-Floralen espezie mehatxatuei buruzkoan. Bertan, landare hau edo bere zatiren bat, haziak ere bai, kentzea, jasotzea, ebakitzea eta sustrai eta guzti ateratzearen debekua ezartzen da.

- Goroldioak. Goroldio espezie ugari suntsitu egiten dira neguro gure etxe eta

dendetan apaingarri moduan erabiltzeko.

- Erratza (*Ruscus aculeatus*). Bere egoera ez da bereziki larria, baina filosofia kontsekente batetik begiraturik, ezin dugu onartu masiboki mendietatik hartze-gero bi aste pasa ondoren zaborretara botatzeko.

- Izeia. Erosi eta hama-bost egun etxean edo lokal komertzial batetan egon eta gero zaborretara botatzeko ohitura daukagu.

Arazo honen aurrean apaintza alternatiboa dago:

1- Mihura, zenbait zuhaitzen bizkarroia dena, aukera ona da, eta mendetan zehar erabili izan da.

2- Plastikozko imitazioak: Hauek gomendatzen dizkizuegu nahiz eta denok jakin benetakoak ederragoak direla.

3- Adar lehorrak: Erraz aurkitzen dira gure mendietan.

4- Makila lehorrak edo aroztegi-tako tablatxoak.

**ARRASATEKO EGUZKI**



**Jai egunak medio, datorren astean ez da ARRASATE PRESSIK izango. Ezazue pentsa aurtengoz jai hartu dugunik. 30ean, urte berri zoriontsua emateko besterik ez bada ere, beste ale berezi bat izango duzue eskuartean, dotore-dotorea, egutegi eta guzti! Eguberri on!!!**



**Memesa**  
**79 42 22**

BLUSAK  
OSAGARRIAK  
POLTSAK

**XAHO**  
ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban  
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie




Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

# Hartuko duzu parte Santamasetako ferian?



**Ana Idigoras**  
Lore saltzailea  
(33 urte)

Beno, loreekin etorriko gara baina lehiaketan ez garen ez sartzen, desberdin dio. Egun horretan, Gabonetarako lorak saltzen dira batez ere. Aurtengoa ikusi egin behar.



**Pako Mondragon**  
Barazki saltzailea

Saltzen ez, zertarako? ez da saltzen eta. Bertako produktuak erakutsi behar dira, ez kanpokoak: tomateak, iderrak, ez dira garai honetakoak. Sari onak egotea ere beharrezkoa da.




**Edurne Abarrategi**  
Barazki saltzailea  
(64 urte)

Saltzen ez behintzat. Ustedut inoiz ere ez naizela etorri saltzera. Ikusteko asko gustatzen zait, baina nire ustez norbere produktuak ekarri behar dira.



**Iñaki Mugika**  
Barazki saltzailea  
(33 urte)

Ikustera bakarrik etorriko gara. Nire ustez bertako produktuak bakarrik erakutsi beharko lirateke. Baina, berez, asko gustatzen zait feria.



**Jose Luis Crespo**  
Ogi saltzailea (18 urte)

Oraindik ez dakit etorriko garen ala ez. Gainera, kanpokoak gara eta ni behintzat ez naiz sekula ere etorri. Ez dut feria ezagutzen.



**Amaia Iturbe**  
Barazki saltzailea  
(24 urte)

Lan askorekin gabilta eta asteartea izanik, egun txarra da guretzat. Dena dela, etortzen bagara, gure baserriko produktuak bakarrik ekarriko ditugu.



**Jesus Moya**  
Gazta saltzailea  
(37 urte)

Ez, normalean ez gara etortzen. Urtero urtero beste lagun bat etortzen da eta ez zait ondo iruditzen hari konpetentzia egitea. Baina gustatu asko gustatzen zait.



**Encarnación Arana**  
Barazki saltzailea  
(75 urte)

Bai, baina ikusten bakarrik. Inoiz ere ez naiz etorri saltzera. Etortzekotan ere ez nituzke kanpoko produktuak ekarriko baina jendeak egitea ez zait hain gaizki iruditzen.


**Auto-soinua**  
Karburaioa  
Autoarentzako  
osagarriak

Urbarri Etorbidea, 16  
ARRASATE 79 73 58

AGUSTIN

ARRASATE ALMIZEN  
Elektragarriak


Kateak, poligotasunak, Musak, luburrak, X2  
Tfnok: 77 13 52 / 77 13 13 ARRASATE



# N E B R A S K A

## kafetegia-taberna

Zarugalde, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 09 39



# ARRIARAN

## UMEEN JANTZIAK

Urte berrio on eta jai zorionsuak  
opa dizkizu  
ARRIARAN jantzi-dendak.


Etxeko umeentzako, opari gisa Olentze-  
rok, jantzi asko ekartzea espero dugu.

Adi egon!! Likidazioa taila handietan.  
(10etik 18ra arteko tailak)

Otalora, 29  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 05 61



# Erregalorik merezi duzu?




**Mikel Irazabal**  
(4 urte)

Bai, ondo portatu naiz. Motorra eta margotzeko pinturak eskatu ditut.



**Idurre Osa**  
(7 urte)

Ez dakit zer eskatu, baina ondo portatu naiz eta uste dut erregalo asko izango dudala.



**Gorka Kintana**  
(11 urte)

Sega eta joku bat eskatu ditut, etxean nahiko ondo portatu naizela esan didate eta seguruen izango dira opariak.



**Garañe Palacios**  
(7 urte)

Merezi? bai! ondo portatu naiz eta. Panpinak eskatuko ditut, eta Olentzerok urtero ekartzen dizkit.



**Maika Martinez**  
(10 urte)

Bai, eta Eskolarako gauzak eta panpinak eskatuko ditut. Ikatza ekartzen badidate? jateko bada, ondo.



**Jabi Frutos**  
(11 urte)

Ez dakit ondo portatu naitzen edo ez; eta zer eskatu ere ez, arropa eta partxis bat seguruen.



**Oihana Segovia**  
(10 urte)

Bai, nik uste dut merezi dudala, nahiko ondo portatu naiz eta. Igual liburuak eskatuko ditut.



**Ekaitz Menor**  
(11 urte)

Ez naiz oso ondo portatu, baina bideojoku zinta bat eta arropa eskatzeko asmoa daukat.

**SALBERRI**  
HARATEGIA-URDAITEGIA




Azoka Plaza, 22.postua  
Tfnoa: 79 12 09 ARRASATE



**UXARTE**  
Kafetegia,  
gozotegia  
Gaez irekita!!  
JO TA KE!!

Bañez dokorea, 12  
Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE



**SAMEGO**  
GARBIKETAK

Uriburu, 24  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 70 39

**NAROKI**  
Urrezko bitxiak

**NAROKI**

Opariak, Jostailuak, Liburuak,  
Paperdegia  
Erdiko kale, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 47

Gipuzkoa:  
bihotz-bihotzean



Gipuzkoarekin buruz eta bihotzez bat eginik ari gara lanean. Horregatik, finantz zerbitzurik aurreratuenak eskaintzeaz gain, bertako nortasunaren alde ere gogotik ari gara **kutxa**. Kirolaren, kulturaren, artearen, musikaren, ohiturarik errotuenen alde. Gure jende guztiaren alde. Gipuzkoa bihotz-bihotzean daramagulako.

**Gipuzkoa: Bihotz-bihotzean.**



kutxa


gipuzkoa  
donostia kutxa

caja gipuzkoa  
san sebastián





# Aurtengo Gabonetan gastu handiak egin behar dituzu?



**Maximino Andres**  
(41 urte)  
**Fagorreko langilea**

Ez dakit. Krisia igartzen da, baina urtero bezala ospatuko ditut, pasatu gabe, ez goitik eta ez behetik. Janari eta oparitan gastatuko dut gehiena, noski!



**Mariasun Abarategi**  
(46 urte)  
**Etxekoandrea**

Krisiak ez dit eragin, baina aurreratzeaz arduratzen naiz. Umeei eta, gutxiago eska dezaten, esaten diet "krisia, krisia...", baina betiko moduan ospatuko ditugu.



**Zelestino Gaztañaga**  
(58 urte)  
**Langabetua**

Bizimodua gero eta gogoragoa da eta beste urteetan baino gutxiago gastatu beharko dugu; porrupatatak jan behar badira porrupatatak jango ditugu.




**Iratxe Gonzalez**  
(18 urte)  
**Umezaina**

Beste urte batzutan baino gutxiago seguruen. Janaritan baino, diru gehiago gastatzen dut oparitan.



**Lourdes Bigera**  
(34 urte)  
**Etxekoandrea**

Ahal izanez gero, beste urte batzuetan baino gutxiago gastatuko dut. Oparitan beti gastatzen da zerbait, baina ahalik eta gutxien.



**Jesus Sancho**  
(27 urte)  
**Langilea eta ikaslea**

Ez naiz dirua begiratu bariarik gastatzen duen horietakoa, baina Gabonetan umeei eta emazteari beti egiten diet zerbait berezia.



**Ines Borrego**  
(32 urte)  
**Etxekoandrea**

Betiko moduan ospatuko ditut. Oparitan gastatuko dut batez ere, afaltzera gurasoengana joaten gara eta.



**Aitor Sanchez**  
(17 urte)  
**Lantegi Eskolako ikaslea**

Ez dut asko gastatuko. Nire etxean gehienbat janaritan gastatzen da; nik neuk ez dut oparirik eta egiten.

## TXITXINPE

### BEREZITASUNAK

Kafea, ardoak,  
urdaitegia, fruitu  
lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
Tfnoa: 79 67 76  
ARRASATE




Argitaletxeak bere **Hiztegi Enziklopedikoa** aurkeztuko du Maxi Eroskin 18 eta 19an.  
Zotoz ezagutzera!



## Asteroko eskaintza

Abenduaren 18tik 26ra bitartean  
%15eko deskontua TXANDALEKO  
PRAKATAN  
%10ekoa beste edozein artikulutan

EBAKI ETA  
ERABIL  
NAZAZU!!



**Uriarte**

SPORT

Olarte, 6 Tfnoa: 79 27 78  
ARRASATE

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. .... 79 53 00  
 Igoalatorioa ..... 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) ..... 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua ..... 79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara ..... 76 55 76

**DYA**  
 Antzuola ..... 76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) ..... 79 13 57  
 (Txanda hartzeko) ..... 77 03 46  
 ..... 77 07 21  
 Oñati ..... 78 08 52  
 Eskoriatza ..... 79 98 58  
 Aretxabaleta ..... 79 74 58  
 Aramaio ..... (945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantziak ..... 45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati ..... 78 04 11  
 Bergara ..... 76 14 69  
 Arrasate ..... 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea ..... 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile  
 burua ..... 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea ..... 78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) ..... 79 09 00  
 Elektrizitate (iberduero) ..... 79 05 81  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 ..... 79 78 44  
 ..... 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak ..... 79 12 22  
 P.E.S.A. .... 79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza ..... 79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte ..... 79 87 77  
 KIUB-OMIC ..... 79 51 55

**Monterrongo liburutegia**  
 Monterron ..... 77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 18**  
 Egunez: Mozos, Pedro Deunaren.  
 Gauez: Mozos, Pedro Deunaren.

**Larunbata 19**  
 Egunez: Camacho, Oxirondo.  
 Gauez: Camacho, Oxirondo.

**Igandea 20**  
 Egunez: Camacho, Oxirondo.  
 Gauez: Camacho, Oxirondo.

**Astelehena 21**  
 Egunez: Puy, Barrenkale.  
 Gauez: Puy, Barrenkale.

**Asteartea 22**  
 Egunez: Guallar, San Antonio.  
 Gauez: Guallar, San Antonio.

**Asteazkena 23**  
 Egunez: Estella, Matxiategi.  
 Gauez: Estella, Matxiategi.

**Osteguna 24**  
 Egunez: Mozos, Pedro Deunaren.  
 Gauez: Mozos, Pedro Deunaren.


**18 OSTIRALA**

**ZINEA**  
 "Makinavaja, el último choriso"  
 (7,10)

**INSTITUTUKO JAIA**  
 Institutuko jaia. Institutuaren 15. urteurrena. Gimnasio berriaren inaugurazioa. Arrasaldeko 7etan. Arrasateko Institutuan.

**EUSKAL EZKERRAREN HITZALDIA**  
 Euskal Ezkerraren hitzaldia: Euskal Herriaren eraikuntza nazionalen ezkerraren zeregina. Hizlariak: Kepa Aulestia. Arrasateko Ezkertokian. Arrasaldeko 7etan.

**ARGAZKI ETA DIAPOSITIBA LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**  
 Murruxikoko VI. argazki eta diapositiba lehiaketako sari banaketa eta erakusketaren hasiera. Aretxabaletako Udaletxeko Erakusketa Aretoa. Arrasaldeko 8etan.



**ARANTZAZURAKO OTOITZ IBILALDIA**

**Bihar Otoitz ibilaldia egingo da Arantzazura. Oñatitik irtengo da goizeko 9.30etan eta meza eguerdiko 12etan izango da Arantzazun bertan. Oñatiraino autobusez joan nahi dutenek, Arrasateko Parrokian hartu dezakete txartela. Bertako meza, Jose Maria Setien Gotzainak emango du.**

**19 LARUNBATA**

**ZINEA**  
 "Peter Pan" marrazki bizidunak (5etan)  
 "Makinavaja, el último choriso" (7,30,10)

**PINTURA ERAKUSKETA**  
 Julio Galartaren pintura erakusketaren hasiera. Urtarrilaren 9a bitartean. Arrasateko Haresi Aretoa.

**OTOITZ-IBILALDIA ARANTZAZURA**  
 Otoitz ibilaldia Arantzazura. Meza 12etan. Arrasaten, autobus txartelak Parrokian.

**HBko MITINA**  
 HBko mitina. "Presoak bakearen gudariak, etxera" izenpean. Hizlariak: Jon Idigoras eta Jose Mari Olarra. Arrasateko Herriko Enparantzan. Arrasaldeko 7etan.

**ROCK KONTZERTUA**  
 Soziedad Alkoholika, Parabelum eta Baldin Bada taldeen rock kontzertua. Musakolako Kiroldegian. Gaueko 10etan.

**20 IGANDEA**

**ZINEA**  
 "Peter Pan" marrazki bizidunak (5etan)  
 "Mujer blanca soltera busca" (7,30,10)

**EGUNKARIAren FESTARAKO AUTOBUSAK**  
 Egunkariaren Festara joateko autobusak. Izena emateko epea 18an bukatzen da. AEDk antolatuta.

**GABONETAKO KONTZERTUA**  
 Coro Ondarreta eta Orkestra Ondarretaren Gabonetako kontzertua. Elorrioko Arriola Kultur Aretoa. Eguerdiko 1etan.

**GIPUZKOAKO ITZULIA**  
 Puerto Urkarregi-San Urbano ermitara mendi irteera. Goizeko 8etan irteera Aretxabaletako Partenoitik.



**EGUNKARIAREN FESTARA AUTOBUSAK**

AED Elkarteak Egunkariaren festara joateko autobusak antolatu ditu. Datorren abenduaren 20an Donostiako belodromoan ospatuko den festan Egunkariaren bigarren urtemuga ospatuko da. Honako hauek hartuko dute parte: Anje Duhalde, Gorka Knor, Bedaxagar, Kepa Junkera, Pier Paul Berzaitz, Peñagarikano, Maddalen Lujanbio, Sebastian lizaso, Arantzazu Loidi, Takolo, Pirrux eta Porrotx pailasoak... Arrasatetik autobusez joan nahi dutenek AEDn eman beharko dute izena.

**21 ASTELEHENA**

**ZINEA**  
"Mujer blanca soltera busca" (7,10)

**"ARRASATE 92" KO SARI LEHIAKETAK**  
AEDko "Arrasate 92" lehiaketan sari lehiaketa. Monterronen. Arratsaldeko 7etan.

**EUSKAL LIBURU ETA DISKA AZOKA**

Euskal liburu eta diska azoka. 24a bitartean. Sebero Altubenen.

**DIPOSITIBA EMANALDIA**

Iosu Bereziartuaren "Cho Oyutik Everestera" diapositiba emanaldia. Aretxabaletako Zاراia zinean. Arratsaldeko 7etan.



**PINTURA ERAKUSKETA**

Julio Galarta Bengoaren pintura erakusketa bihar, abenduak 19an, zabalduko da. Bertan herri desberdinetako paisaiak daude ikusgai: Landa, Errioxako Samaniego, Arabako Amarita, Ullibarri Ganboa, Donostia, Oñati... pasaiak du Juliok gogoko eta arlo horretan trebeki ipini du bere izena Euska Herriko pasaiari haundien artean. Pintura bizitza oso eskaini dion gizon honek maisutasunaren ikurra erakusten du bere obra guztian. Urtarrilaren 9ra arte zabalik.

**22 ASTEARTEA**

**ZINEA**  
"Mujer blanca soltera busca" (10etan)

**UCEM**  
Union Cerrajerako desagerepe-naren historiaren aldizkariaren salmenta eta UCEMen aldeko mozioa aurkezteko sinadura bilketa.

**BERTSO JAIALDIA**

Bertsolariak: Andoni Egaña, Imanol Lazkano, Jon Iñaki Izarzelai eta Aitor Sarasua. Alai zinean. Arratsaldeko 7etan. AEDk antolatuta.

**SANTAMAS EGUNA**

Euskal Produktuen azoka (10etan), kalejira (11etan), eskaparate lehiaketaren sari banaketa (12etan), txalaparta (12.30etan), herri kirolak (12.30etan), Txerri dantza (2etan), Herri bazkaria (2.30etan), Larrain dantza (8.30etan), dantzaldia (11etan).

(Egitarau osoa 46. orrialdean)

**ESKI KANPAINA**

Foru Aldundiko "Eski kanpaina" gazte zein familiei zuzenduta eta inskripzioak egiteko, Gazteentzako Informazio Bulegora joan zaitzekete. 15-29 urte bitarteko gazteentzako tarifak hauek dira: egun bakarreko iharduerak Aretten 2.800 PTA, Astun eta Formigalen asteburu osoa 8.200 eta Andorran astebete igaro ezker, 27.000 PTA. Horrez gain, famili osoarentzat tarifa bereziak daude.



**23 ASTEAZKENA**

**ZINEA**  
"Mujer blanca soltera busca" (7,9.30)

**24 OSTEGUNA**

**TXORONPIO ETA OLENTZERORO**  
Txoronpio, goizeko 11etan. Olentzero arratsaldeko 6etan Arrasateko kaleetan.



**OLENTZEROREN ZAIN**

Abenduaren 24ean, urtero bezala, Olentzero etorriko zaigu Arrasatera. Goizeko 11etan Txoronpiok gutunak batuko ditu eta arratsaldeko 6etan, berriz, Arrasateko kaleetan gozokiak banatu eta umeekin egongo da Olentzero. Eta gauean, ekarri dituen opariak banatuko ditu etxez etxe.

**DONEZTEBERA IRTEERA**

AEDko Gazte Sailak Donezteberako irteera antolatu du 26tik 30era. 16 urtetik 20ra bitarteko gazteei zuzendu da eta 3.000 pezeta ordaindu beharko da. Izena emateko AEDra zuzendu abenduaren 21a baino lehen.

**AMNISTIAREN ALDEKO GESTORAREN EKINTAK**

Hilaren 22an Santamas egunean, txekorraren txartelen salmenta izango da. 24ean, berriz, Olentzeroren ondoren, hau da, 7.30ak aldera, manifestaldia Arrasateko kaleetan. Eta azkenik, datorren 26an Herrerako martxara joan nahi dutenek (txartelak: Biona, Etxerat eta Gazte-txean), gaueko 11etan izango dute irteera.

“Estatu Batuetako unibertsitate batzuetan, Marxen teoriari baino ordu dexente gehiago dedikatzen diote Arizmendiariaren pentsamenduari. Horretaz aparte, eskakizun mordoa daude Arrasateko esperientziaren berri ‘in situ’ edukitzeko. Era guztietako pertsonak pasatu dira Arrasatetik: Zinbaueko Kanpo Arazoetarako Ministraria, Txekoslovakiako Ministria... (...) Gaur inoiz baino gehiago On Jose Mariaren estimulua behar dugu, adituek esaten dutenez lanik ez dagoelako, eta ekonomia guztiz ikututa dabilelako.

On Jose Mariak kulparik ez lioke ekonomiari botako. Lanean hasiko zen konponbideak bilatzeko.”

**Javier Marcos** 92-12-3

**Egunkaria**

“Nire lehen 17 urteetan Eskola Nazionalak, errepresioak edo erregimenaren propagandak etortzeko ziren gauza berrietan —orduan erabiltzen genuen hitza ez zen demokrazia, askatasuna baizik—, ilusio handiagoa sortarazteko bakarrik balio izan bazuten, hurrengo 17 urtean aski izan dira ia esperantza guztia itotzeko”.

**Mariano Alvarez.** 92-12-4

**EL DIARIO VASCO**

“Gaur, sekula baino gehiago, aberastasun maila handiagoak sortzeko eta lanpostu aukerak eskaintzeko, ahalegin garrantzitsua eta indarrak gastatze handiaren beharra du gizarteak. Zaila izan arren, ezin gara gaur egungo posizioak mantentzearekin konformatu, enpresa eta iharduera berriak sortu behar ditugu. (...) Ekimen berriak sortu eta horietan sinistek, gaur erabil genezakeena etorkizunerako gordetzea esan nahi du, egungo kontsumoa sakrifikatu eta aurreztu eta inbertsioak egitea etorkizun hobea eratzeko”.

**Jesus Mari Herrasti** 92-12-3

**EL DIARIO VASCO**

## Ludoteka zertarako?

**P**entsa ezina da jolasik gabeko gizaldia, aroa edo bitzita. Jolasa, berezko ezaugarriak dituen iharduera berezia da, parrearekin eta dibertsioarekin lotuta. Jolasa pozez eta atseginenez egiten den liberazio bide bat da. Jolasaren bidez haurrak, bere nortasuna garatu egiten du, baita gure gizartean edo taldeetan “leku” bat hartu ere.

Auzo, herri edo hirietan gero eta zailagoa egiten zaio haurrari kalera irten eta arriskurik gabeko espazio zabal eta erosoan hamarreko lagun taldearekin elkartzuz bat, jolasaldi bateaz disfrutatzea.

Haurra gero eta ziurtasun handiagoarekin mugitzen da espazio itxietan eta jolaskideak bilatuko dituen guneak ditu gogoko.

Ludotekek oso paper garrantzitsua betetzen dute eta bide batez, haurraren garapen fisiko eta psikikoan lagunduko dio etengabe.

Pauso bat gehiago ematen laguntzen du euskararen erabilpen eta normalkuntzan. Aipagarria da Hizkuntza Politikarako idazkariak, Mari Karmen Garmendiak, euskararen berriraperean diona: “Eskolak betetzen duen lana, garrantzitsua izan arren, mugatua da, ezin du berea den eginkizuna baino haruntzako joan, ezta umeek eskolaz kanpo euskara erabiltzen duten ala ez arduratu behar.

Hutsune hori betetzeko, aisi tartekak eta eskolaz kanpoko ekintzak landu egin behar dira”.

Dena den guzti hau aipatu eta gero, ez dezagun ahaztu herriko erdialdean bizi diren umeekin batera Arrasateko auzoetako haurrak ere izan beharko lirakeela pribilegio txiki horien jabe eta eskaintza berdinak dastatzeko aukera eman.



**Urri Urizar**

Ludotekako proiektuaren egilea

**Jai goxo eta zoriontsuak!**

**PINTURA EKOLOGIKOAK**  
**Diferentzia: zure osasuna**

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87



# LORAMENDI BIROLAK

Dena eskiatzeko.



SALOMON  
 SKISS®  
 NORDICA  
 NEVICA  
 ATOMIC  
 etirel  
 ROSSIGNOL  
 KASTLE

eta askoz gehiago.

# SUKALDIAK *eya*

**FAGOR**  
**Miele**

De Dietrich   
 Europeenne d'Electroménager

**GAGGENAU**

**ALNO** Sukalde altzariak.  
 Elektragailuetan markarik onenak.

ALNOCUP, zuri diamantea, beltza.



**San Frantzisko Xabier eguna, ikastolan jai**

San Frantzisko Xabier Ikastolako ikasleek, ikastolako patrioaren egunean jai egun zuten, ohi eta merezi duenez. Goizean zehar, makina bat jolas egin zuten, Uribarri, Gazteluondo edo Ferixalekuko haurrek; goiz erdian, berriz, ogitartekoa indarrak berreskuratzeko eta eguerdi-aldera arte, joku, dantza eta jai-giroko ekintza gehiago.



**Euriteek kalteak eragin herriko toki askotan**

Abenduaren hasierako euriteek, erreka eta errepedeetan ezezik, mendietan ere izan zuten eragina. Altamiran, Gorostizan, Kataide poligonoko atzekaldean eta beste toki batzuetan lur-jausiak ikusi ahal izan ziren, kalte handiegirik egin gabe izan arren. Beharbada lur jausirik ikusgarriena, etxeen eta errepedearen gertutasuna kontuan hartuta, Altamirakoa izan zen. Eskabadora batek aste osoan egin behar izan zuen lan errepedearen alde batean pilotutako lurra kentzeko. Egia esan, eguraldiaren aldetik, ahazteko moduko zubia izan zen Kontzesinokoa, atera zuen haizeaz aterkinek ere ez zuten ezer askotarako balio eta.

herriko agintariekin batera, Santa Barbara parke berria bisitatu zuen. Inauguratu eta segiduan jasan du Santa Barbarak burugabeen ekintzen eragina, goiko tabernako kristalak apurtu egin baitituzte.

**Bonba mehatxua BBV-n**

Hilaren 3an, bonba-mehatxua izan zen Garibai kaleko BBV-n. Dirudienez, arratsaldeko hiru t'erdia aldera telefonoz egindako dei batek, Garibaiko sukurtsalean bonba zegoela

adieraziz Ertzantzari. Ertzantzak ingurua akordonatu eta pasabidea moztu egin zuen. Ertzantzak ordu pare batean izan zuen zirkulazioa etenda, bonbarik ez zegoela ziurtatu arte.

**Bedoñarako oinezkoentzako zubia**

Bedoñara oinez joan nahi dutenek bariantea pasa beharrik izan ez dezaten, zubia jarri dute San Josepe parean. Zubi hau Foru Aldundiko Errepideetako sailak kontratatutako Construcciones Sobrino enpresak jarri zuen eta 41 toneladatarako pisua dauka. Oraindik obrak ez dira zeharo bukatu, aldamenetako heldulekuak jartzea falta da eta.

**Galanek ezin irabazi Oviedon**

Santi Galan boxeolariak ez zuen Superligeretoetako estatuko txapelketa eskuratu. Arrasatearrak ezin izan zion aurre egin Berdonces madrildarrari. Bostgarren asaltoan, arbitroak borroka eten eta Manuel Berdonces izendatu zuen irabazle.

**Radiologia zerbitzua eta Santa Barbara parkearen inaugurazioa**

Abenduaren 4ko goiza inaugurazio artean pasa zen: alde batetik Eskualde Ospitalean radiologia zerbitzua inauguratu zen; bestetik, Santa Barbara parkea. Radiologia Zerbitzua inauguratzeko, beste agintari batzuen artean, Iñaki Azkuna Osasun sailburua izan zen, eta Eskualde Ospitalearen duintasunaz hitz egin zuen. Ospitalean Azkuna bezala, Santa Barbaran beste sailburu bat izan zen, Maturana Hirigintzakoa. Hamabietan eta euripean,

**PARTE HARTZEKO ARAUAK**

- 1— 6 urtetik 14 urtera bitarteko edozein haurrek har dezake parte.
- 2— Parte hartzeko, txartel honen aurreko aldean egin beharko dute euren marrazkia eta euren datuekin galdetegi biak bete. Markoan umearen izena eta adina agertuko da. (Deitura ez da beharrezkoa).
- 3— Marrazkiak, 1993ko urtarrilaren 5a baino lehen aurkeztu beharko dira Renault banatzailean. Aurkezterakoan, txarteltxoak postakutxara bota beharko da.
- 4— Jasotzen diren marrazki guztien artean 25 onenak aukeratuko ditu Fasa Renaulten Epaimahaiak, bi mailatan: 6tik 10 urtetara eta 11tik 14ra. Marrazki irabazle horiek 16 bitseko bideo-jokoen kontsola jasoko dute saritan.
- 5— Era berean, Buzoietan utzitako txarteltxo guztien artean 100 liburu-sorta zozkatuko dira, 50 maila bakoitzean. Zozketa Madrilen egingo da 1993ko urtarrilaren 20an.
- 6— Fasa Renaulteko langilegoak ezin izango du lehiaketan parte hartu, ezta sareko enpresetakoek edo ekintza honetan parte hartzen duten enpresetakoek ere. Hurbil-hurbileko senideek ere ez.
- 7— Lehiaketa honetako oinarri-arau guztiak Renault Banatzaileetan daude nahi dituenaren esku.

Margotu auto bat  
**RENAULTentzat**


**MECA, S.A.** Arrasateko kontzesionarioa

## Korreosetako zerbitzua hobetu nahi Bedoñan

Orain arte, Bedoñakoek Correosetako bulegoetan zenbakidun postakutxa izan dute, auzotar batek bertatik korreoa jaso eta eraman izan du, Auzoetxeko atarian etxe bakoitzak duen kutxatilara hain zuzen ere. Bedoñakoak aspalditik ari dira Correosi kexua azaltzen, gutunen banaketa bere ardura dela eta. Udalaren aurrean aurkeztutako idatzian, Bedoñako auzo-batzordekoek korreoa Auzoetxean jarrita dauden kutxatiletaraino eraman behar dela diote.

## San Frantzisko Xabier Ikastolako asanblada

San Frantzisko Xabier Ikastolako asanbladan izandako 300 gurasoek erabaki garrantzitsuak hartu zituzten. Aipagarriena, Udalari, Ferixalekuko berritze obrak egin ordez, ikastolaren patrimonioaren zati baten lagapena egitea eskatzea litzateke. Obrek 215 milioitako aurrekontua dute, Udalak egingo ditu, baina ordainean Gazteluondo, Santa Teresa eta AED kokatuta dagoen lokalak eskuratuko ditu.



## Uharkapeko auzia konponbidean

Denbora luze eztabaida gogorretan ibili ondoren, pasa den astean Azatza kooperatiba eta Udalak akordioa sinatu zuten. Akordioa sinatu eta gero, Azatzako biztanleek jartzen zituzten eragozpen guztiak ezerezean geratu dira. Beraz, hormaren obrak eragozpen barik egin ahal izango dira, eta zerbait gertatuz gero, Udalak 250 milioitako abala du erreserban. Horma egiten den denboran, kontrol ugari egingo du Udalak eta bukatu eta gero, abalak bi hilabetetarako balioa izango du.

## Txirindulari Elkarteak badu etorkizunik

Arrasateko Txirindulari Elkarteak desagertzeko arriskuan egon da, baina orain arteko zuzendari-tzakoek erreleboa aurkitu eta Elkartearen etorkizuna ziurtatu dute. Joseba Etxagibel, izango da Elkartearen lehendakari berria; Datorren urtean

kadete-mailako hiru lasterketa eta San Juan proba antolatu beharko dituzte gutxienez.

## Amat-en behin betirako integrazioa Fagorren

1990. urteko apirillean Amat kooperatibak Fagor taldean integartzeko erabakia hartu zuen. Orduetik hona, integrazio prozesua

pausoz pauso gauzatzen joan da eta orain behin betirakoa egingo da. Integrazio prozesuaren gauzatzea dela eta, azken egunetan Ederlaneko langileei, prozesuari buruzko azalpenak eman zaizkie. Bihar Ederlanen asanblada burutuko da, eta beste gai batzuren artean hori ere eztabaidatuko dute.

### JAIOTZAK

- Maialen Erostarbe Maiztegi. Azaroaren 30ean.
- Natalia Lur Ortiz de Landaluze Diaz. Abenduaren 4ean.
- Unai Perea Kortabarria. 5ean.
- Andoni Iria Aspe. 7an.

### HILDAKOAK

- Maria Aranburuzabala Beitia. Azaroaren 30ean. 92 urte.
- Juan Iraola Otadui. Abenduaren 1ean. 81 urte.
- Juana Ortiz de Elgea Otxoa. 8an. 84 urte.
- Marcos Larrea Elustiza. 13an. 80 urte.
- Elena Bilbao Asua. 14ean. 64 urte.

### EZKONBERRIAK

- Andres Gomez Simarro & Ma Aranzazu Santana Gil. Abenduaren 5ean. Elizaz.
- Jesus Ma Elorza Crespo & Ma Inmaculada Alvarez Gonzalez. 5ean. Elizaz.
- Ignacio Sierra Ignacio & Ma Concepcion Cruz Lopez. 12an. Elizaz.

# aitzgorri

LARRU eta LARRUKIAK

## LARRUZKO PRAKAK 15.000 PTatik AURRERA!!!

Maalako Errabala, 7 Tfnoa: 76 06 36 ARRASATE

## Ondo pasatu jaiak!

# eya

## ELEKTROTRESNAK

Argizatze tresnatan aukera zabala

Iturriotz, 21 Tfnoa: 79 03 84 ARRASATE





JUAN EMILIO BARRENA \*

## Amatxo horien alde

**Senideak** osatzen duten pertsonak definitu behar bantitu, esango nuke kolektibo kosmopolita dela, familiar-teko bat preso izateagatik bizitzak erreazionarazi egin diona. Familiar-teko bat preso izatea eta horrek dakarren guztia bizi duen kolektiboa. Sarritan, sekula imaginatu ere egingo ez zituzketen ekintzak burutu beharrean aurkitzen dira, era guztietako erreibindikazioak, batzutan indarkeriaz erreprimituak, larrialdi ekonomikoak, talde politiko eta erakundeekiko bilera eta topaketak, konta ezin ahala bidaia imagina daitezkeen modu guztietan eginak, bejazioak, probokazioak etab. jasatzea.

Inoiz entzun izan diet senide "beteranoenei" oso gauza gutxi direla oraindik egin gabekoak, baina egin

behar izanez gero, zalantzarik gabe egingo lituzketela. Jende multzo horren indarra eta ausardia erakusten dizkigu horrek, edozein talde edo Elkartek berez dituen akats eta aziertuekin.

Baina Gabonetako egun hauek hurbildu ahala, indar horrek ordu bajuak eta makalaldiak ere izaten ditu,

.....

*“Zergatik? semea/alaba etxetik 3.000 kmtara dute. Zergatik? isolaturik dago. Zergatik? jipoitu egiten dute, Zergatik?”*

amatxo askok Santo Tomas eguneko bazkaria, edo Gabon Gaueko nahiz Gabon Zaharreko afaria prestatzen dutenean eta aulki huts horri begiratu edo neskatila edo mutikoak familia guztiarekin jan eta barre egiten zueneko argazkia ikusten dutenean, negar malkoei ezin izaten zaie eutsi eta negar egiten dute, inpotentziaz negar, euren buruari galde-tuz zergatik? semea/alaba etxetik 3.000 Kmtara dago. Zergatik? isolaturik duten, Zergatik? jipoitu egiten dute, Zergatik?...

Familia giroan esanahi bereziko egun hauetan, animatu egin nahi zaituztet, eta zuekin guztiok, amatxo horiekin lan egiteaz harro sentitzen naizela esan. Maitasun eta babesez hutsune horiek betetzera gonbidatu nahi nuke gizartea, eta mobilizatzea, gure familiar-teko presoen eskubideen errespetuaren alde bakarrik ez, baita, gure Elkartearen zutarri garrantzitsu diren amatxo guzti horien alde ere. Benetan merezi duela dio-tsu.

\* SENIDEAK ELKARTEKO PARTAIDEA  
(Erredakzioan itzulia)


## USTEAK USTE

### HOR DAGO

**Bi urte pasa dira gure egunkaria, Euskaldunon Egunkaria, sortu zenetik, eta bere bigarren urtebetetzea aste honetan ospatu dugu. Bi urte gogor eta zailak. Ezin dut ulertu Eusko Jaurlaritzak euskara hutsean idazten duen egunkari bakar honen aurka daraman politika. Ez. Sinestezina. Zitala, esan beharko nuke. Euskara salbatzeko hain garrantzitsua den tresna hau, euskaraz idatzitako egunkari bakarra, arriskuan dago. Desagertzeko arriskuan, hain zuzen. Eta hala gertatuko da euskaldun guztion laguntza jasotzen ez badu.**

**Arriskuan, Eusko Jaurlaritzarengandik Euskadik argitaratzen diren beste egunkari denek publikitate bitartez jasotzen dituzten laguntzak gure egunkari honek jasotzen ez dituelako. Hori ez da zuzen jokatzea. Ez dakigu ondo, ez, alderdikeria horrekin nahiz Egunkariari nahiz Euskarari egiten diegun mina, batzuk aktibo eta beste denok pasibo, denok baikara egoera honen errudun. Eros dezagun Egunkaria!**

J. R. ELORTZA



## ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak.  
Beirina eta kristalak. Akzesorioak.**


Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25







# NEREA



- Ume-moda
- Gizonezko eta emakumezkoen lentzeria
- Kortseteria

Erdiko kale.  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 13 43

**ZORIONAK DENOI!**



## JOSE MARI SALEGI

### HARATEGIA - URDAITEGIA

### AUTOZERBITZUA

**Bertako harategia eta etxean egindako odolosteak  
Jamon York-a ere etxekoa dugu!!**

Olarte, 20  
Tfnoa: 79 45 55  
ARRASATE

# Auzoak parekatzeko, lehentasunak ezarri beharra

Azken asteotan, arazo, behar eta egitasmoei buruz hitz egiteko aukera izan dute baserri-auzoetako alkateek Arrasate Press-eko orrialdeetan. Auzo-Alkateek makina bat kezka plazaratu dute eta, horiei neurri batean erantzuteko, Udaleko Auzo Batzordeko lehendakariari galdetu behar, Isabel Zuazubiskarri. "Auzo-Alkate gehienek dirurik ez zaiela iristen diote, baina kontuan hartu behar da lurra- ren antolaketa sistemaren ondorioz, Aldunditik etortzen den dirua oso neurtuta etortzen dela; hau da, asko begiratzen da baserria nolakoa den, mixtoa, etxebizitza hutsa, txaleta, baserri baserria... eta horren arabera ematen dira dirulaguntzak. Gauzak horrela, ez da arraroa Gatzagak, esaterako, guk baino diru gehiago jasotea, baserritik bizi diren gehiago daude eta".

## Premiazkoenak

Ura, zabor-bilketa, bideak eta postakutxaren arazoa aipatu dituzte gehienetan auzoetako ordezkariak, ahalik eta azkarren konpontzeko arazoak Isabelentzat, beste batzuk ikusten baditu ere. "Urarena ia konponduta dago auzo guztietan, saneamendua egiteko badugu ere. Bideei buruz, esan behar toki askota-



Zaldibarrren ez dago auzo-alkaterik; Bedoñan, berriz, orain izendatu dute berria.

ra ezin izan direla egin baldintzak betetzen ez direlako edo baserritarrari, %25a ordaindu behar duenez, oso garesti ateratzen zaiolako. Zabor-bilketa, lehenbaitlehen konpondu behar da, baina Mankomunitatearekin batera, eta orain arte Mankomunitatearen irtenbideak garestiegiak izan dira, behar bada Land Rover-en bat jarri beharko dugu. Azkenik, postakutxaren arazoa nolabait eta berehala konpondu behar da, ez Correosetako jasotzeko

bakarrik, baita herrian eta Udaletxean sortzen den informazioa izateko ere. Gustatuko litzaidake Garagartzan frontoia izatea edo bola-tokia Urribarrin edo lokal bat Meatzerekan, baina aurrez bidezkoa izango da beste auzoetan ura izatea. Lehentasunak ezarri behar ditugu".


## Zaldibar eta Bedoña

Baserri-auzoei eskainitako orrialdeak bukatzeko, Zaldibar eta Bedoña auzo berri ematea beharrezkoa da.

Zaldibar auzoan aspalditik ez dute auzo-alkaterik aukeratu; auzo hamar baserri mixtok osatzen dute, 57 biztanleren bizileku. Azkenik, Bedoñako baserri-auzoa, 23 baserritan bizi diren 106 arrasatear bertan; horien artean, baserritik ateratakoarekin bizi diren hiru baserri. Auzoaren erdi-gunean, eliza, taberna-jatetxea, eta elkarte. Bedoñan orain-txe izendatu dute auzo-alkate berria eta gauzak nola dauden jakin arte, ez hitz egitea erabaki du.

# ZABALETA lurrindegia

Maisu Arano, 2 Tfnoa: 79 12 32 ARRASATE



Supermerkatu berria Araba Etorbidean irekiko da, lehen Escatu tubo lantegia zegoen tokian.

## Uda alderako supermerkatu handia San Andresen

Unialco enpresak San Andresen supermerkatu handi bat irekitzeko obrak hasi ditu dagoeneko, lehen *Escatu* lantegia zegoen tokian. *Unialco*ren asmoa, maiatza-ekaina aldera lanak bukatzea da; beraz, ordurako arrasatearrek, batez ere San Andresekoek, gozotegi, okindegi edo eta arraindegi berrietan erosteko aukera izango dute. Supermerkatuak, *Super BM* izena izango du eta 800 metro karratuko tokia, Gipuzkoan *Unialco* irekiko duen 26.a izanik. *Unialco*, *IFA* taldeko partaidea da, atzerrian *ALDI* izenez ezagutzen den supermerkatu sarekoa.

*Unialco* entpresako arduradunetarikoa batek ARRASATE PRESSI adierazi zionez,

Arrasaten irekiko den supermerkatua 2.000. urteko supermerkatua izango da, "Batez ere zerbitzuan, garbitasunean eta argitasunean. Prezioei dagokienez, eguneroko jakietan prezio merkeenean kalitate onena eskaini nahi diegu etxekoandreei". Eskaintza propioaz gain, kompetentziaz ere hitzegiten zuen *Unialco*ko ordezkariak, "Supermerkatua irekitzea erabaki aurretik, merkatu ikerketa serioa egin genuen eta kompetentzia herrian oso finkatuta zegoela egiaztatu ere bai. Dena dela, gure bezeroak desberdinak dira, auzoetako jendea da; horregatik irekiko dugu supermerkatua hemen, erdi-gunetik urruti egon barik auzoan dagoelako".

### Txakurrak lotuta Santa Barbaran

Badirudi Santa Barbara txakurrarekin paseatzeko toki egokia dela. Hori dela eta, bertara txakurrak joaten direnei txakurra lotuta erabili behar dela adierazi nahi die Udalak, lotu barik erabili ezkerorlategiak apurtzen dituzte eta.

### Gaztetxea dekoratu nahi

Gaztetxeokok lokala dekoratzea nahi dute eta, "Pareta isiletan espresatu" izeneko lehiaketa zabaldu eta urtarrilerako makrame ikastaroa antolatu dute. Bestalde, datorren 25ean Herrerako joateko autobusak antolatu dituzte. Gauza baterako zein besterako, bertara zuzendu.

### Ordutegi berezia kiroldegi bietan


Gabonetako jaiak direla eta, Iturripe eta Kiroldegia itxita egongo dira egun batzutan: 22an arratsaldez itxita egongo da, 25a eta urtarrilaren 1a egun osoan eta 6an arratsaldez. Beste egunetan zabalik egongo da, betiko orduetan.




- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 77 06 43  
ESKORIATZA

## EDERTU ileapaindegia



San Andres auzoa  
Tfnoa: 79 04 28  
ARRASATE



Guztira 91 elkartek sinatu dute Euskararen aldeko Hitzarmena; orain arte maila handian bete da.

## Beste 15 elkartek Euskararen Hitzarmena sinatu

Asteazkenean, Euskararen erabilpena areagotzeko Hitzarmena sinatu zuten 15 elkartek: Arrasate Musikal akordeoi orkestra, Euskal Ezkerra, III. Mundu Taldea, Txikitxu, Elisabeth, Gipuzkoako EHNE sindikatua, Zarugalde albaiteroen klinika, Gertu Inprimategia, K3 inprimategia, Arrasate logopedia zentrua, Txalaparta Taldea, Leintz zeramika eskola, Dorletako Ama Txirringulari eskola, AGAKO Gaztetxea eta Arrasateko Txirringulari elkarte. Eta elkarteen sinadura zuzentzen: Xabier Zubizarreta, alkatea; Jose Mari Zeberio, Hezkuntza politikarako idazkaritzako ordezkaria; Jose

Mari Mugika, AEDko lehendakaria eta Jon Zuazabeitia, Hitzarmeneko teknikaria.

Azken urte honetan hitzarmena ia %93an bete dela. Bestalde, epealdi honetan Udalak hitzarmena %97an bete du eta Udalarizuzendutako idazkietan %92an bete dela esan dezakegu. Udalak parte hartu ez duenetan euskararen erabilera %88ra jeitsi da.

Besteak beste, honako hau adierazi digu Jose Mari Zeberio: "Arrasaten euskararen inguruan pluraltasuna eta pluraltasunaren errespetoa ezaugarri dira. Garrantzitsua da gure lana da erakargarri oraindik euskaldun ez direnentzat."

### SEASKAren egutegiak salgai

SEASKAri laguntzeko egutegiak salgai daude Arrasaten, AED, Hire, Ttukun, Irati, Batzokia eta Amaiurren, 300 PTAtan.

### SOS Balkanes-en oharra

SOS Balkanes-ek Bosnia-Herzegovinara janariak bidaltzeko kanpaina jarri du martxan. Premiazko elikagaiak dira beharrezkoen. Janari hauek eman nahi dituzuenok, ATBra ekarri arratsaldeko 5etatik 7etara.

### Unai proiektua

Unai-Aretxabaleta proiektukoek, diru eskari zabala egin dute. Proiektuaren helburuak Indiako Unai eskualdean eskolak eraiki eta lurrak landatzeko bezala jartzea dira. Orain arte, proiektuan Aretxabaletako 83 familiak eta Arrasateko 12k hartu dute parte. Laguntza eman nahi izanez gero, kontu korrente hauetan sar daiteke dirua: Euskadiko Kutxa: 038.0.04435.3 eta Kutxa: 0651124/0.

Zubizarreta



GALERIA

44



**ZORIONAK ETA OPARI BEREZIAK**



**Adiskidetasuna eskertuz, Urte Berri atsegina**

# Bosniarrak: hemen, baina bihotza Bosnian

Sarajevo inguruetan egiten ari diren erasoei ihes eginez, Mazedoniako errefuxiatu kanpamendu batetara joan eta bertan lau hilabete pasa ondoren, hemeretzi bosniar iritsi ziren Eskoriatzara Kontzezinoko zubian. Ondorengo sei hilabeteetan, San Viator Harrera Etxean biziko diren sei familia bosniarrak, hiru bi bikote seme-alabadunak, ama bat seme batekin, beste bat hiru semerekin, eta senarra han utzita etorri den emakumea, oraindik ez dira hemengo bizimodura ohitu.

Hizkuntza ez ezagutzea izugarritzko muga dute oraingoz, eta denbora guztian itzultzailea izaten dute aldamenean. "Hemengo bizimodura ohitu bezain laster -zioen Sejla Dizdarevich, itzultzaileak-, gaztelera ikastaroretan hasiko dira. Umeek ez dute ikasteko arazorik izango, baina nagusiei gehiago kosta zaie seguruen".

Nahiz eta ulertu ez, Bosniako berri jakiteko, telebistari begira denbora asko pa-



Euren herrira itzultzea dute bosniarrek ametsik ederrena.

satzen dute. Telebistak dioena ez dela egia diote, Sarajevon egoerak ez duela txarrera egin, "orain astebete Sarajevotik Mazedoniara iristen zen jendeak, egoera baretu egin zela zioen". Esperantzarik ez dutela galtzen baina etorkizunik ez dutela zioten bosniarrek, "Han geundenean zerbait ginen, arkitekto, ekonomilari, abokatu... lana ge-

nuen, baina ezertarako ez dugula balio sentitzen dugu orain, ezin dugu lanik egin, ezin ditugu geure umeak mantendu". Une berean, beste sentimendu bat ere adierazten zuten bosniarrek, "Pozik gaude bizirik egotearren, eta hemengo jendeak egin digun harrera eta eskaini digun laguntza eskertezinak dira. Hala ere, ONUk eta EEBBk

zerbait gehiago egin behar luketela uste dugu, Bosnia eta bosniarrak desagertzen utziko dutela dirudi. Europako palestinarrek bihurtuko gara, lurrik gabeko herria".

Orain arte urteberriari, pozez eman diote ongietorria, aurren akaso ez, "Gauza horiek ez dute garrantziarik, etxetik kanpo, ez da gauza bera".



## GRONDO

### eletrizitatea

- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



**Gabonetako argiak lehen aldiz jarri dira aurten Arrasateko kaleetan. Pasa den astetik, gauetz, kolore desberdinetako bonbilaz argitzen dira Erdialdeko kaleak. Norberaren etxeakoaz gain, kaleetan ere badugu Gabonetako giroa aurten.**


Bertso jai ederra antolatatu zuten *Abertzaleok*, *Bai Independentziari*, *Herria 2000 Herrien Liga* eta *Euskaria* taldeek. Kiroldegian izan zen jaian Egaña, Jon Sarasua, Irazu, Jon Enbeitia, Mañukorta eta Peñagarikano izan ziren. Txalok frogatu zuten kalitate ona!

Gaztaina saltzailea heldu da Arrasatera. Portaloiko postuan saltzen dituen gaztaina beroek, arrakasta handia izango dute egun hotz hauetan. Gabonetako giroarekin bat, Santamasak direla eta, barrakak ere jarri dituzte Biteri plazan.



Pasa den igandean, hilak 6, San Nikolas eguna ospatu zen. Ohitura den bezala, ume eta nagusi, Herriko Plazan bildu eta San Nikolas kanta abestu

zuten. Horren truke Udaletxeko balkoitik hainbat gozokibota zitzaizkien. Nork gehiagohartu ibili ziren.



**Fagorrek antolatu duen Gabonetako txartelen lehiaketan aurkeztu diren lanen erakusketa zabalik izan dugu Mon-**

**terronen. Partehartzaile asko izan dira eta oso gauza politak ere ikusi ditugu. Artista onak dira eta dela demostratu dute!**

**TROKO  
TROKO  
TROKO**

**TROKO**

**JANTZIDENDA**

Olarte, 6 ARRASATE Tfnoa: 79 46 94

**TROKO  
TROKO  
TROKO**

Santamasetako txerria, urtero bezala, Gesalibarko Eleizgarai baserrian izango dugu astearterarte. 300 kilo ditu eta oraindik ez diote izenik ipini. Baserrikoek esan digutenez, oso formala eta lasaia da. Ea zela portatzen den astear-tean!



## IZEN PROPIOAK

Pasa den abenduaren 6, 7, eta 8an Arrasaten burutu zen akordeoi lehiaketan **Aitor Furundarena** izan zen senior mailako irabazlea. Junior mailan **Mikel Aranburu** eta gaztetxoan mailan berriz, **Maddi Lizarraga**. Hoietaz gain, 41 arrasatearrek hartu zuten parte eta **Gorka Ortiz de Mendibilek** urrezko domina eskuratu zuen.

**Ines Gomez Martinez, Agurtzane Muguruza Gonzalez** eta **Ramon Mendizabal Pacheco** dira Eskola Politeknikoko irakasle arrasatear berriak. Lehenengo biak Hizkuntza departamentuan eta Ramon mantentetan aritu dira.

**Joseba Etxagibel**, 41 urteko arrasatearra eta Monte tabernako jabea, Txirrindularen Klub-eko lehendakari izendatu dute. Berarekin batera, zuzendaritza Batzordean, **Emeterio Gallastegi, Eugenio Balzategi, Rafa Etxabe** eta **J.L. Otxoa** izango dira.



ARRASATE PRESSEKO ale berezi honetan, San Frantzisko Xabier Ikastolako neska mutikoek eginiko azala dugu oraingoan. Egilea **Agurtzane Urteaga** izan da, 9 urtekoa. Baina beste askok ere bidali digute euren marrazkia; bat


aukeratu behar eta nahiko lan izan dugu. Argazkian, horietariko batzuk ditu eskuetan Agurtzane. Aurkeztutako "azal" guztiak ikusteko aukera, Sebero Altuben AEDk antolatutako liburu azokan izango da.

**ARRASATE  
PRESS**

**HARPIDETZAK**



**77 05 65**



**EGVZKIGRAF**

**Grafikagintza. Tipografia.  
Offset industrialia**

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala



Aurreko astean eginiko haize bolada indartsuak direla eta, Monterrongo zuhaitz baten adarra jausi eta parkean da-  
goen laku txikiaren gaineko zubia apurtu zuen. Haize indartsua izan beharko zen halako adarra botatzeko!



**Arrasateko Udaltzaingoak lanerako uniforme berria estreinatu du astean, Astore etxeak emanik. Hotz eta euriaz babesteko goretex eta forro polarrez eginiko uniforme hauek, abantaila handiak emango dizkiete lanerako. Argazkian, uniformeak ofizialki aurkeztu zuten eguna.**



Nahiz eta argazkia egiteko orduan, jubilatutako kuadrila hau Alikanten egon, Arrasaten ditugu, Gabonak pasatzeko bakoitza bere etxean. Besteak beste: *Inazio*

*Etxaburu eta bere emaztea, Maria Luisa Uribetxeberria, Felix Garai, Bibiana Elejardi, Jose Azkarate eta Rosarito Astaburuaga (argazkia egiten). Ongi etorriak guztioi!*



Arrasateko Pedro Luis Bermudez Fernandezek miloi bat irabazi du BBVko txartelarekin ordaintzeagatik. Banketxeak zuzendariak eman zion txekoa. Zorionak!



## **ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDAK**

### **Liburuak eta diskoak**

Ibargarai, 12 BERGARA  
Tfnoa: 76 40 50



Maxi Eroskin **abenduaren 18 eta 19an** gure argitaletxearen azken nobedadeak ezagutzeko aukera izango duzu.



# Futbito Txapelketa ZALDIBARREN



## Agur 1992 eta ongietorri 1993!

Dribling ederra egingo diote Zaldibarko Txapelketari bertan dabiltzan taldeek, dribling luzea gainera, 1993ko urtarrilaren 9ra arte ez da partidurik jokatu eta. Argazkiko dribling-a bezain ederra, beraz. Aitzaki askorik behar ez duenak laster aurkitzen dituela, begira bestela: asteartean Santamasak burutzen direnez eta asteburuan

jai-giroa nagusi izango denez, oraingoan jai. Gabon eguneko bixamonari aurre egiteko modurik egokiena lasai egotea izango dela pentsatuz, datorren asteburuan jai. Hurrengoan, berriz, antzera, urteberrira lasaitasunez hasi beharra nonbait. Era batera edo bestera, urte berrira arte futbitorik ez Zaldibarren.

**NUEVO**  
taberna

Bañez Doktoea, 15  
Tfnoa: 79 99 88  
ARRASATE



DEBA  
**GARAIA**

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia  
Tfnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?

**SEGURASKI BAIETZ !**

a taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	10	9	1	0	72	20	<b>19</b>
ZULOAK	10	9	1	0	45	18	<b>19</b>
LOS HEREDIA	10	7	1	2	51	15	<b>15</b>
ARRASATE KIROLAK	10	7	1	2	38	24	<b>15</b>
URMAY B. K.	10	6	2	2	38	21	<b>14</b>
AIZPUN BILA	10	7	0	3	39	27	<b>14</b>
KAIXO LENIZ	10	6	1	3	37	38	<b>13</b>
DANOK LAGUN	10	5	2	3	31	25	<b>12</b>
BETRAYER	10	4	3	3	33	25	<b>11</b>
BUKANAK	10	5	1	4	33	29	<b>11</b>
SIBILIUS ROVER	10	4	1	5	28	27	<b>9</b>
ITT	10	5	0	6	35	38	<b>8</b>
DRAFT	10	3	0	7	34	52	<b>6</b>
WHISKERIA LINDE	10	3	0	7	34	51	<b>6</b>
DRINK TEAM	10	0	3	7	11	40	<b>3</b>
GARIBAI-5	10	1	0	9	17	53	<b>2</b>
AMOZKIBAR-II	10	1	0	9	20	62	<b>2</b>
RESAKAS	10	0	0	9	14	54	<b>1</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>180</b>	<b>81</b>	<b>18</b>	<b>81</b>	<b>610</b>	<b>610</b>	<b>180</b>

b taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
MIKELOS	10	9	1	0	42	12	<b>19</b>
ZIZTI-ZAZTA	10	7	2	1	43	17	<b>16</b>
JODO-FLORO	10	6	3	1	30	21	<b>15</b>
ZULUS	10	7	0	3	40	27	<b>14</b>
MOTZ	10	6	2	2	43	44	<b>14</b>
BIZKORRAK	10	6	1	3	20	17	<b>13</b>
DIEGO ANTONIO	10	5	2	3	41	25	<b>12</b>
LA BANDA	10	4	2	4	29	25	<b>10</b>
GATZBAKUAK	10	3	4	3	24	32	<b>10</b>
PUBLICOOP	10	4	2	4	23	33	<b>10</b>
TRONKOTEAK	10	4	1	5	36	38	<b>9</b>
KAKAJAURI	10	3	3	4	28	35	<b>9</b>
ANBOTOSTE K. T.	10	3	1	6	25	35	<b>7</b>
LAUTHERBRUNNEN	10	3	1	6	18	38	<b>7</b>
BAYERN PROMESAS	10	1	2	7	18	46	<b>4</b>
ATERPE KAFETEGIA	10	1	1	8	16	32	<b>3</b>
KAJOI TABERNA	—	—	—	—	—	—	—
FOSFOROS	—	—	—	—	—	—	—
<b>GUZTIRA</b>	<b>180</b>	<b>76</b>	<b>28</b>	<b>76</b>	<b>515</b>	<b>515</b>	<b>180</b>

c taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	10	9	1	0	68	14	<b>19</b>
NOSKI	10	9	0	1	54	17	<b>18</b>
ADELAIDA HAIZEA	10	6	2	2	52	16	<b>14</b>
LASO ARREGI	10	6	2	2	49	26	<b>14</b>
GURE LEKU	10	6	2	2	52	33	<b>14</b>
ARRASATE KRIST.	10	6	0	4	43	27	<b>12</b>
NUEVO TABERNA	10	5	2	3	44	31	<b>12</b>
ADOBE F. C.	10	6	0	4	48	30	<b>12</b>
TXOKO TABERNA	10	5	1	4	30	30	<b>11</b>
ALPARGATA TURBO	10	4	2	4	34	35	<b>10</b>
AUF DEM KOFFER	10	4	2	4	24	25	<b>10</b>
NAVARROS	10	4	1	5	32	38	<b>9</b>
GANBELAS	10	4	1	5	23	28	<b>9</b>
KRISKIBALDA	10	1	4	5	23	35	<b>6</b>
ATXANTA KE TE...	10	2	0	8	19	65	<b>4</b>
ALLA KUIDAUS	10	1	1	8	16	62	<b>3</b>
SEGUROS ORB ITA	10	1	0	9	26	57	<b>2</b>
BALEIKE	10	0	1	9	15	63	<b>1</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>180</b>	<b>79</b>	<b>22</b>	<b>79</b>	<b>636</b>	<b>636</b>	<b>180</b>

d taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. UGARTE	10	9	1	0	72	17	<b>19</b>
LEINTZ GARAGAR.	10	7	2	1	35	14	<b>16</b>
FOTO IMAGEN	10	6	2	2	49	25	<b>14</b>
LOS DIMY	10	5	4	1	52	28	<b>14</b>
POTROAK LORAT.	10	5	4	1	37	29	<b>14</b>
PEPELUS	10	5	3	2	37	23	<b>13</b>
ZOTZ	10	6	1	3	33	39	<b>13</b>
MONTERREY TAB.	10	6	0	4	46	29	<b>12</b>
KOXKAS	10	4	4	2	29	26	<b>12</b>
NOTXINGAN FLO.	10	4	3	3	44	37	<b>11</b>
SOLANO 7 MARES	10	5	0	5	44	33	<b>10</b>
SOKOAKOAK	10	3	1	6	40	46	<b>7</b>
ARTZANKOS UDAL.	10	2	3	5	37	41	<b>7</b>
OLEEE!	10	3	1	6	28	43	<b>7</b>
UGLYS	10	3	0	7	19	31	<b>6</b>
EZKINAKO HONTZAK	10	2	0	8	21	63	<b>4</b>
BAYERN DE LENIZ	10	0	1	9	19	65	<b>1</b>
ILUNA TABERNA	10	0	0	10	11	64	<b>0</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>180</b>	<b>75</b>	<b>30</b>	<b>75</b>	<b>653</b>	<b>653</b>	<b>180</b>

Zarugalde kalean...

**BRANKA**  
taberna

**ESKIÑA**  
taberna

**Goizeko 7etan zabaltzen dugu**  
Olarte, 25 ARRASATE Tfno: 79 20 20

**I**  
**R**  
**T**  
**A**  
**B**  
**E**  
**R**  
**N**  
**A**

Ferrerias kalea  
**ARRASATE**  
Tfnoa: 79 71 80

**LIZARRA**  
taberna

Leintzibar kalea, 2  
**ARRASATE**  
Tfnoa: 79 72 35



**Hori da mutil, ondo eutsi baloiari eta ez askatu inguruko guztiek aldegin arte. Behin harrapatuz gero, ez dizu ez, min handirik egingo aurrelarien gertutasunak, ez dizu inork baloirik lapurtuko. Hori bai, taktika horregaz ahaztu kontraerasoren bat burutzerik, horretarako baloia heldu bezain laster askatu behar da eta.**

**BELARRIRA**

◆ **Halakorik oraindik!** bakoitzak egokien duen trajea eramatea bezala da. Asteazken arratsaldean Zaldibarko Txapelketan dabilzan talde guztien ordezkarien bilera burutu zen, baina bilera aurreratu zuenik ere bada. Astelehen arratsaldean *Resakas* taldeko jokalaria bat Monterronen agertu zen, osteguneko bilera orduan izango zelakoan. Bilergelan sartu, eta bururatu zitzaion han zeuden gizona eta emakumezkoak ez zutela Zaldibarren jokatzeko itxura handirik.

— “Barkatu, hau ez Zaldibarko bilera?”

— Ez, hau alkoholiko anonimoena da.

Hori *Resakas* taldeko bati gertatzea ere! Ezagutu, ezagutzen dugu, baina izena ematea gehiegitxo litzateke.

**EMAITZAK**

**A TALDEA**

Drink Team 1 .....	Los Heredia 6
Zuloak 7 .....	Draft 4
Bukanak 4 .....	Garibai-5 1
Kaixo Leniz 5 .....	Betrayer 4
Resakas 1 .....	Urmay B. K. 5
Aizpun Bila 5 .....	Amozkibar-II 5
Arrasate Kirolak 3 .....	Danok Lagun 2
ITT 2 .....	Whiskeria Linde 1
Sibilus 4 .....	Argi Ibili 6

**C TALDEA**

Atxanta ke te... 2 .....	Trikiti 5
Alpargata Turbo 3 .....	Seguros Orbita 2
Laso Arregi 4 .....	Adelaida Haizea 4
Ganbelas 3 .....	Kriskibalda 1
Gure Leku 7 .....	Alla Kuidaus 1
Noski 5 .....	Baleike 2
Nabarros 2 .....	Arrasate Krist. 4
Adobe 1 .....	Nuevo taberna 8
Txoko Taberna 3 .....	Auf Dem Koffer 3


**D TALDEA**

Monterrey tab. 10 .....	Bayer de Lenitz 4
Foto Imagen 9 .....	Notxingan Florest 2
Uglys 3 .....	Zotz 5
Ezkinako Hontzak 1 .....	Pepelus 3
Sokoakoak 4 .....	Koxkas 6
Oleee! 3 .....	Sum. Ugarte 5
Leintz Garagar.3 .....	Los Dimy 3
Solano 7 Mares 4 .....	Iluna taberna 0
Artzankos Udal. 1 .....	Potroak Lorategi 4

**B TALDEA**

Mikelos 2 .....	Diego Antonio 2
Kakajauri 7 .....	Anbotoste K. T. 4
Publicoop 3 .....	Zizti-Zazta 2
Aterpe Kafetegia 4 .....	Tronkoteak 6
Bayern Promesa 2 .....	Gatzbakuak 2
Jodo Floro 3 .....	Bizkorrak 1
Motz 4 .....	La Banda 6

**Gabonetan ere  
Iluntz eta  
Iturriotz  
tabernetan  
girorik onena!**



**ZUK-NAHI  
taberna**

**Goizeko 7etatik aurrera zabalik  
PINTXO EDERRAK**

Erdiko kale, 18 Tfnoa: 79 65 72

**RUMBA  
taberna**

**Jai  
zoriontsuak  
izan!**

Iturriotz kalea  
ARRASATE

**Hau bai  
martxa  
EKAITZ  
taberna**

Otolora kalea

**ASTE BURU HONETAN**

**A taldea**

Drink Team / ITT  
 Zuloak / Danok Lagun  
 Betraye / Urmay Burger King  
 Resakas / Whiskeria Linde  
 Bukanak / Argi Ibili  
 Amozkibar II / Kaixo Leniz  
 Los Heredia / Arrasate Kirolak  
 Aizpun Bila / Draft  
 Garibai-5 / Sibilius Rover

**B taldea**

Mikelos / La Banda  
 Kakajauri / Bizkorrak  
 Aterpe Kafetegia / Fosforos  
 Zulus / Motz  
 Publicoop / Kajoi taberna  
 Gatzbakuak / Tronkoteak  
 Diego Antonio / Jodo Floro  
 Bayern Promesas / Anbotoste K. T.  
 Zizti-zazta / Lautherbrunnen


**C taldea**

Atxanta ke te merece / Auf Dem Koffer  
 Alpagata turbo / Bar Nuevo  
 Gabelas / Allakuidaus  
 Gure Leku / Txoko taberna  
 Laso Arregi / Baleike  
 Arrasate Kristaldegia / Kriskibalda  
 Trikiti / Adobe F. C.  
 Navarros / Seguros Orbita  
 Adelaide Haizea / Noski

**D taldea**

Monterrey taberna / Solano 7 mares  
 Foto Imagen Argazki / Los Dimy  
 Ezkiñako Hontzak / Koxkas  
 Sokoakoak / Iluna taberna  
 Uglys / Potroak Lorategi  
 Suministros Ugarte / Pepelus  
 Bayern de Leniz / Leintz Garagardotegia  
 Oleee! / Notxingan Florest  
 Zotz / Artzankos Udalaiz

**NON DAGO BALOIA?**



**Nork jasoko du hilabete honetan Non dago baloia? lehiaketan emango diren 20.000 PTako saria? Auskalo! Jokatzen ez duenak, ez, hori seguru. Hurrengo ARRASATE PRESSEAN, hilaren 30ean emango dugu jakitera zozketan ateratzen den irabazlearen izena. Bidali erantzuna egun hori baino lehen eta zu zeu izan zintezke sariaren irabazlea.**



**7. astea**

**NON DAGO BALOIA?**


- Erantzuna .....
- Izena .....
- Tfnoa .....

*Trikiti*

S. L.

**SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA**

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxe: 79 88 56



Erdiko kale, 11 ARRASATE Tfnoa: 79 14 33

### OINETAKO DOTOREAK

- Lottusse
- Koll-Flex
- Ferrerias
- Romika

### GAZTEENTZAKO OINETAKOAK

- Camper
- Dr. Marten's
- Panama
- Ellos

# POLTSAK, GERRIKO ETA OSAGARRIAK



*Epelde*

**BIDEO ERREPORTAIK**

Iturriotz, 22 ARRASATE Tfnoa: 79 19 71

• **JAI ZORIONTSUAK IZAN!** •




**Zorionak!**



**LASAGABASTER**

**ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



● *Jabier Landaluze*

# Petrolero bateko kapitaina

**“Alvaro de Bazan” izeneko untzian petrolea garraiatzen da Mexikotik. Jabier da untzi horren kapitaina eta 40 marinero ditu bere kargu.**

— Zergatik aukeratu zenuen marinero lanbidea?

— 11 urte nituela nire arreba nagusia donostiar batekin ezkondu zen eta uda guztiak bertan pasatzen nituen. Ondoren, nahiz eta nire gurasoek nahi ez, 18 urterekin Bilboko eskola nautikoan sartu nintzen ikasten.

— Eta zenbat herritan ibili zara?

— Askotan. Hasieran Groelandiara joaten nintzen, 6-7 urtetan. Ondoren Estatu Batuetara ere egin nituen bidaiak batzuk, beste 10 urtetan. Hasiera oso gogorra izan nuen eta beharbada horrek asko lagundu dit. Gaur egungo konpainiarekin Arabiara joaten ibili naiz, azken 15 urtetan. Baina hango gerra hasi zenetik, azken hiru urteotan, Mexikora egin izan ditut bidaiak.

— Zer garraiatzen duzue?

— Petroleoa. Untziak 15 tanke ditu petroleoa ekartze-

ko. Hemendik hara hutsik joaten gara eta handik 200.000 tonelada petroleo ekartzen ditugu.


— Neurri gogorak daude petroleroentzat?

— Bai. Pasatzen garen edozein kostaldean, untzia aztertu eta zaintzera etortzen zaizkigu. Zorionez orain arte ez dut izan istripu inportanterik eta horrek asko poztzen nau. Exxon Valdez eta Amoco Cadiz untziak itsasoan eginitako hondamenarengatik ezagutu izan dira, niri behintzat ez zait horrelakorik gertatu. Askotan pentsa dezakegu bonba baten gainean egiten dugula lo baina...

— Eta Galizian pasa denari buruz zer iritzi duzu?

— Beno ditudan albisteak egunkarrietan irakurritakoak dira. Horren arabera, hiru egun La Coruñaiko portuan sartzeko itxoiten egon ondoren, ez dakit nork emango zuen portuan sartzeko baimena. Eguraldi txarrakin ezinezkoa da portuan sartzea. Ez dakit nork emango zuen baimena, oso arriskutsua da.

— Eta bizi izateko, untzia ondo prestatuta dago?



— Bai, untziak denetatik du, eta batzuk oso kuriosoak direnak: adibidez, 9 pisuko igogailua du. 295 metroko luzaera eta 48ko altuera 40 marinero joaten gara. Untziak komodidade guztiak ditu: gimnasioa, liburutegi ona, 80 bideo pelikula eramaten ditugu eta bakoitzak bere gelan bideoa aparailua ere badugu... Gainera, kuriosoa da, nahi duen marineroak bere emaztea eramanez, eta ez mandu handiek handiek, marinero denek, sukaldariaren laguntzaileak ere eramanez.

— Zenbat denbora pasatzen duzu etxetik kanpo?

— Hiru hilabete eta erdi, bi buelta eta erdi egiten ditugu. Eta Geronara bueltatzean beste kapitainak hartzen du agintea eta beste hiru hilabete eta erdi horiek etxean pasatzen ditut.

— Etxean zer esaten dituzte?

— Urte asko daramak eta ohituta daude. Baina hasi nintzenean nire emazteak seme bien ardura guztia zuen, hiru hilabete horietan bera moldatzen zen semeekin, bera zen ama eta aita. Zorionez ez du arazorik izan. Gaur egun desberdina da, semeak nagusiak dira eta urtean behin nirekin etortzen da emaztea. Gainera, jubilatzeke ez zait denbora asko premina. Beharbada haisieran oso zaila egingo zait urte osoa hemen egotea, baina moldatuko naizela uste dut, denkantsatzeko falta daukat eta.

— Gaur egun jende asko dago marinerua izateko ikasten?


— Ez, gero eta gutxiago. Lehen marina ikasiz gero, lanbide segurua zegoen baina gaur egun gauzak oso zailak daude. Estatuan gero eta untzi gutxiago daude eta asko atzerrian konfederatutakoak dira. Atzeritik untzi asko sartzen badira, gero eta marinero gutxiago behar da.

● **“Askotan pentsa dezakegu bonba baten gainean egiten dugula lo, baina...”**

# Lorionak




ARABA ETORBIDEA, 18  
ARRASATE (GIPUZKOA)  
(943) 797333



Kirol bakoitzerako erantzun bat.

ORAIN MENDIZALEENTZAKO SEKZIO BEREZI BAT ERE BAI

Astore  
North-Face  
Millet  
Marmot  
Saleva  
Lowe  
Duofold  
Helly Hansen  
Rivori Joanny  
Vessant  
Trango  
Boreal  
Bestard  
Roca  
Kamet



**ARRASATE**


**KIROLAK**

Kontzeziño, 8

Tfnoa: 79 46 12 / 77 12 47







Mahainguruan, Josu Sanz, Antton Fernandez eta Jesus Mari Elkorok hartu zuten parte

# Gabonak: Kontsumo egunak

Beñardo Kortabarria

**Antton Fernandez, Arrasateko Kontsumitzaileen Informazioarako Udaltzako arduraduna; Josu Sanz, Eroski aldirikotako zuzendaria; eta Jesus Mari Elkorok, denaldaria eta Ibai Arte Elkarteko partaidea bildu ditugu "Gabonak eta kontsumo" gaiari buruz hitz egiteko. Hona hemen, laburbilduta, hirurekin izandako solasaldia.**

**Gabonak, behar ez diren gauzetan gastatzen den dirua?**

Jesus Mari Elkorok: Ba-

liteke jendeak gehiegi gastatzea, baina pertsonaren izaeran dagoen zerbait da hori. Guztiontzat, kontsumitzaile zein saltzaileontzat, hobe izango litzateke salmenta guzti horiek urtean zehar banatzea, baina badirudi jendeak horrela eskatzen duela.

**Antton Fernandez:** Jendeak berez ez du eskatzen, marketing-ak, publizitateak... goxokia jartzen dute, jendeak har dezan. Orain urte batzuk ez zen hori gertatzen.

**Josu Sanz:** Kontsumitzaile bakoitzak erabakitzen du noiz eta non gastatzen duen eta zertan. Gabonetan gauza asko erosten da, jendeak diru-sarrerara gehiago dituelako.

Kontsumitzailea agente ekonomikoa da, dirurik badu gastatu egiten du eta zertan gastatu erabaki gainera, eta ez badu, beste egoera sozial baten sartzen da.

**Jesus Mari Elkorok:** Ofertaren munduan bizi gara, kontsumitzaileari erosi dezakeena baino gehiago eskaintzen zaio. Gaur kontsumitzaileak hezkuntza behar du, ez erosteagatik erostea. Kontsumitzaileari mezupiloa iristen zaizkio, hezi egin behar da, eta hezitzen ez denak sekula ez ditu erosketak onak egingo.

**Josu Sanz:** Baina, nork finkatzen du zein den kontsumitzaileari eman behar

zaion hezkuntza? zeinek esango dio bere diruaz zer egin? Posible da eroslearen erabakia saltzailearentzat ona ez izatea, edo alderantziz. Kontsumo munduan "hauek edo besteak izan behar dira jarrerak" esatea, nahiko arriskutsua da.

**Jesus Mari Elkorok:** Ezingo da esan hau horrela da eta bestea horrela, baina kontsumitzaileak ikasi egin behar du aurrean jartzen zaizkion gauza guztiak ez dituela erosi behar, prezio eta kalitate asko daudela eta barriable horiekin egin behar du dituela erosketak. Noizean behin opariak egiteko aitzakia dira Gabonak.



Publizitateak eta krisiak Gabonetako erosketetan izan dezaketen eraginez luze hitz egin zuten.

**Antton Fernandez:** Etxe batean, normalean, hiru edo lau pertsona mantentzeko diru-sarrera bakarra izaten da. Pertsona horiek poza eta zoriona lortzeko diru sarrera bakarra dute; ezin dute guztia erosi, eta zoriona pikutara joaten da. Askotan poz hori emateko, jendeak zorrak egiten ditu.

**Jesus Mari Elkoro:** Baina ez Gabonetan, Gabon aurrean hutsune bat egoten da eta Gabon ostean ere bai, kontsumitzailea kontrolatu egiten da eta. Jendeak, Gabonetarako aurreratzen du eta Gabonetan gastatzen badu, hurrengo hiletan ez du gastatuko.

**Antton Fernandez:** Jendeak opor ostean, irailean, umeen jantzi, liburuekin etab. gastatzen du; urrian, neguko jantzietan... jendeak zorrak egiten ditu eta azaroan gastatu barik egon behar.

**Josu Sanz:** Kontsumitzaileen problematika kontsumo-gizartean sortzen da, eta gizarte hori ez badago, ez dago kontsumitzaile problematikarik. Agente ekonomikoek diruari ahalik eta errendimendu onena atera

nahi izaten diote.

Gabonetan gehiago gastatzen da, baina ez dut uste familia batek Gabonetan zorrak egiten dituenik, bai ordea etxe bat erosten duenean, hogeit erterako. Arazoa ez da opari gehiago egitea edo ez, zerbait erosterakoan urtean zehar dauden eskubide berberak izatea da arazoa, urtean zehar txartel bategaz erosten badut Gabonetan ere bai, baita beherepanetan erosten badut ere....hori da arazoa.

### Publizitate bonbardaketa?

**Jesus Mari Elkoro:** Publizitatea berez ona da, gero beste gauza bat dago publizitatea garbia ez denean edo gezurra denean. Gabonetan jendeak gehiago erosten duenez, publizitate gehiago egiten da, informazio gehiago emateko. Ez da alde txarretik bakarrik ikusi behar, baditu bere alde onak ere, kontsumitzailea presionatu egin dezake, baina informazio medioa da.

**Antton Fernandez:** Publizitatearen mezuak aztertuta, argi dago zenbatek duten informazioa eta zenbatek

propaganda hutsa. Ia ez dago informazioa duen anuntziarik. Publizitatearen helburua erakartzea da, ez informazioa ematea, propaganda egiten da eta informazioa izkutatatu.

**Josu Sanz:** Medioetan mezu desberdinak ematen dira: telebistan normalean ez da informaziorik ematen, irratiak produktuaren oferta zehatzak egiten ditu; prentsan, azkenik, gauzen eskaintza zabala egiten da. Publizitateak produktuaren alderdi positiboak erakutsiko ditu, dagoen legea betetz, noski.

**Antton Fernandez:** Beti arau legalekin gabiltza, baina gaur egun ez dago arau moralik? Etika beharrezkoa da.

**Josu Sanz:** Kontsumitzaileen problematika aldetik ez, pertsona bezala agian bai. Kontsumitzailea agente ekonomikoa da, dirua ematen du eta ordainean zerbait jasotzen du, saltzaileak zertarako erosten duen galdetu barik.

### Kontsumitzaileek eskubide berberak ei dituzte urte osoan...

**Jesus Mari Elkoro:** Erosle asko daudenean eskubide horiek ez dira akaso



**JESUS MARI ELKORO**

Ibai-Arte Elkarteko partaidea

**Kontsumitzailea hezi egin behar dela eta jendeak Gabonetarako aurreztu egiten duela uste du.**



**ANTTON FERNANDEZ**

Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoko teknikaria

**Publizitatearen presioaz hitz egiten du eta erosi aurretik ondo pentsatzea gomendatzen du.**



**JOSU SANZ**

Eroskiko aldirkariaren zuzendaria


**Jendea agente ekonomikotzat dauka, nahiz eta Gabonetan askok pertsona-jarrerak hartu eta ez kontsumitzaileari dagozkionak.**



◆ **Antton Fernandez:**  
**“Publizitateak goxokia jartzen du, jendeak har dezan. Lehen ez zen hori gertatzen”.**

◆ **Jesus Mari Elkor:**  
**“Hezitzen ez den kontsumitzaileak sekula ez ditu erosketa onak egingo”.**

◆ **Josu Sanz: “Kontsumo munduan, ‘hauek edo besteak izan behar dira jarrerak’ esatea, arriskutsua da”.**



Kontsumitzaileen eskubideak urte osoan berdinak omen dira

**EROSTEKO AHOLKUAK**

- Ondo begiratu eta aztertu ondoren erosi, ez inpulsoz erosi.
- Ondo aukeratu non erosten den, gero arazorik badago, batean edo bestean diferentzia handia izaten da eta.
- Ondo kalkulatu eta aurrekontutik ez pasatu.
- Garantia osoa eskaintzen duen produktua erosi.
- Konparatu produktu berbera, toki askotan ofertak ugari dira eta.
- Urtean zehar bezala, kontsumitzaileen eskubide guztiak esijitu.

berdin berdin azalduko, bezeroa ez da hain ongi atendutuko, erreklamazioak ezingo dira hain ondo bideratu... ezin zerbitzu bera eskaini.

**Josu Sanz:** Baina zerbitzuaren kalitatea zer den bezero bakoitzak erabakitzen du: batzurentzat prezioa da, beste batzurentzat pertsonalki atentitza, beste batentzat produktua lehenbaitlehen eskuratzea... bezeroak erabakitzen du zer den garrantzitsuena, eta horren arabera aukeratzen du toki batean edo bestean erostea.

**Baina saltzaileek bezeroarekiko begirune berbera izaten dute Gabonetan?**

**Jesus Mari Elkor:** Ur-

tean behar baino gehiago seguruena. Guure aldetik bezeroari ahalik eta eskaintza zabalena modu onean eskaini nahi izaten diogu.

**Gabonetan, kexuak aragotu egiten dira?**

**Antton Fernandez:** Bai, prezioak libreak dira eta jendeak urte osoko negozioa egin nahi izaten du hilabetean.

**Josu Sanz:** Opariak erosterakoan, bueltatzeko modurik egoten da? Gustatzen ez bazait, itzultzeko eskubide osoa daukat eta dirua berreskuratzea, ez denda berean erosteko bale bat. Horiek dira kontsumitzaileen eskubideak, eta lortzeko berak egin beharko ditu ahaleginak. Komertzio modernoak hori

onartu egin behar du. Kontsumitzaileari informazioa eman behar zaio, eta hortik aurrera berak pentsatuko du zer egin.

**Antton Fernandez:** Alde horretatik ere, arauak ez daude zehaztuta, produktu askok ez dute jatorrizko izendapenik bete behar eta. Batek erosteko edo ez erosteko aukera du, baina publizitateak badu eraginik. Janariaren publizitaterik ez da ia egiten, eguneroko gauzak dira eta ziria sartzea ez da erraza, beste produktuetan bai.

**Krisiaren eragina nabarrituko da?**

**Antton Fernandez:** Bai igarriko da.

**Josu Sanz:** Jendeak diru

gutxiago duela nabaritzen da dagoeneko.

**Jesus Mari Elkor:** Diru gutxiago baino, psikosia dagoela esango nuke, jendeak gero gutxiago izateko beldurra duela. Lana duenak, gutxi gora behera beti bezala ospatuko dituela uste dut, baina beste egoera batzuk ere badira. Adibidez, Arrasaten lantegi bat itxiko den zurrumurrua dabil, hori bizi dutenek ez dituzte berdin ospatuko.

**Josu Sanz:** Jende askok Gabonetan erabakiak pertsona bezala hartzen ditu eta ez kontsumitzaile moduan, “Akaso datorren urtean ez dut lanik izango, baina Gabonak behintzat betiko bezala ospatuko ditut” esango duen asko izango da.

# Santamas eta Gabonetako kirolak

**Urtero** bezala, kirolak toki berezia izango du Santamas eta Gabonetan.

Lehen protagonista pilota izango da, bihar, goizeko 10etatik aurrera Iturripen, Santamas XIII. Pilota Txapelketako azken partiduak. Txapelketa honetako finalak lau kategoriatan jokatuko dira: pre-benjamin, alebin, pre-jubenil eta ume mailan. Etorkizuneko Arrasateko pilotariak ikusteko aukera aparta.

Igandean, Santamas krosaren XIV.aren edizioa burutuko da, 11etatik aurrera. Ohituraz, kros hau arrakastatsua izan da eta aurten ere, hala gertatzea espero da. Krosa maila desberdinetan egiten da, adinaren arabera eta sailkapenak bakarka eta kuadrilaka ematen dira. Iaz 140 korrikalari izan ziren.

Santamas egunean, astearte, Herri Kirolen txanda. Harrijasotzaile eta aizkolarien lana ikusteko aukera izango da. Aizkolariek, eguerdiko 12.30etan hasiko dira lanean Zaldibarren; bertan, Euskal Herriko aizkolaria onenak: Arrospide, Olasagasti, Mindegia eta Larretxea. Aizkolariek bukatzen dutunean, Gibitegi eta Arrasateko bolo-harria aurrez aurre. Helburua, errekorra haustea: 6 jasoal-



Larretxea aurten ere, Zaldibarko frontoian izango da.

di bost minutuko tandan. Ikusi egin behar lortzen duen edo ez.

Azkenik, Kuadrilen arteko Gabonetako saskibalo txapelketa, iaz bezala 21 talderekin aurten ere. Txapelketa hilaren 23an hasiko da, Iturripeko kiroldegian, lanegunetan arratsaldeko 5etatik aurrera eta asteburuan goizeko 10etan hasita. Partiduak, egunero jokatuko dira, guztira 70.

21 taldeak hiru multzotan banatu dira. Multzo bakoitzean, elkarren artean jokatuko dute eta sailkapenaren arabera, bi taldek lortuko dute bigarren faserako txartela. Sailkatutako taldeekin bi multzo egingo dira, lau onenak aukeratzeko. Urtarrilaren 5ean, lau onenen artean jokatuko dira final erdiak; hilaren 6an, berriz, azken partidua, txapelduna erabakitzeko.

## LABURRAK

### Bosniarren aldeko futbol partidu berezia

Abenduaren 27an, eguerdiko 12etan, Ibarra futbol zelaian, emakumezko UDA taldea eta Aretxabaletako Udalbatzaren arteko futbol partiduak jokatuko da. Neurketaren helburua, S. Viatorreko Harrera Etxean dauden bosniarrentzako dirua lortzea da. Udalbatzako ekipoa, Udala osatzen duten lau alderdi politikoetako ordezkariak eta udal teknikariak osatzen dute. Sarre-ra 400 PTatan jarri da.

### Kiroldegietako pisten alokairua

Iturripe eta Musakolako Frontoiak, futbol kantxak, tenis eta squasheko pistak alokatzeko interesa dutenentzat, bilera izango da bihar. Bilera goizeko 11etan hasiko da, Musakolako bulegoan.

### Aukeratu ezazu AUKEA, Publikoaren Saria...

Aukeratu ezazu aurten, hiru sarituak izan ezik, zure ustez Arrasateko kirolari edo kirol talderik onena.

Jarri aukeratuak izena txartelean eta ekarri ARRASATE PRESSERA. Kirolari onena aukeratzeko zure esku ere badago.

Aurtengo kirolari edo kirol talderik onena:

## MENDI taberna

### Mendi da zure etxea

Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE

## • ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Izpiluak,  
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95  
ARRASATE

**PENALTIAK**

● **Gabonetako saskibalo** txapelketaren irabazleek, trofeoak izan dituzte sari gisa. Aurten, beste zerbait nahi dute antolatzaileek, baina oraindik ez dute sariak ordainduko dituen inor aurkitu. Beraz, badirudi aurten ere trofeoren bat eramango dutela txapel-dunek, nahiz eta antolatzaileak beste sariren bat lortzeko asmotan ibili.



**Larri samar, baina garaipena eskuratu azkenik**

Gorabehera galantak izan ziren joan den larunbatean Arrasate Kirolak eta Pasaitarra taldeen arteko partiduan. Hasteko pasaitarren lau goletako abantaila lortu zuten, 0-4; gero, arrasatearren berdinketa etorri zen, 4-4. Hogeigarren minutuan markagailuak 4 eta 11ko emaitza erakusten zuten, pasaitarren alde; atsedendian, berriz, 12 eta 14koa. Bigarren zatia hasi eta arrasatearrak berehala jarri ziren aurretik, 15 eta 14; baita beranduago, 4 eta 5 goletako abantaila lortu ere, baina partidua bukatzeko zegoela, pasaitarrek ia berdinketa lortu zuten. Azkenik, 27-26 Arrasate Kirolak taldearen alde.

**Gaundituko du Gibitegik boloharriaren errekorra?**

Bai. Egia esan urtean zehar ez dut gehiegi jarraitzen, horregatik ez dakit nola egongo den. Dena dela, errekorra gaundituko du, sasoi-ona erakutsiko du eta.



**JOANITO SAIZAR**  
**Santamasetako herri kirol saioetan aurkezle**

● **Senior mailako eskubalo** taldeak, joan den asteko partidua gol bakar bategatik irabazi zuen. Garaipena lortzeko, lan handia egin zuten jokalariek, baina beharbada aipagarriena, atezaina izan zen Iñigo, hiru penalti gelditu zituen segidan eta.

**EMAITZAK**

**Pilota**

Gipuzkoako Club-arte txapelketa  
Alebinak: Bergara 18 - Arrasate 6  
Infantilak: Bergara 10 - Arrasate 18  
Kadeteak: Bergara 18 - Arrasate 5

**Hurrengo partidua**

Gipuzkoako Club-en arteko finalerdia jubenil mailan, Arrasate - Segura, Iturripen larunbatean 12etan.  
Igandean, goizeko 10etatik aurrera, Santamas Txapelketako finalak eskuz-esku

**Eskubaloia**

Kadeteak: Bergara 23 - Arrasate 17  
Juniorrak: Akondia 21 - Arrasate 19  
Seniorrak: Arrasate 27 - Pasaitarra 26

**Hurrengo partidua**

Kadeteak, Iturripen larunbatean Urrietaren aurka, 4etan.  
Juniorrak, Iturripen larunbatean Pulpo taldearen aurka, 5.15etan.  
Jubenilak, Iturripen igandean Usurbilen aurka, 12etan.

**Atletismoa**

XIV. Santamas Krosa, igandean goizeko 11etan.

**Rugbya**

Arrasate - Irun, kadete mailako partidua, larunbatean arratsaldeko 4etan Garagartzan.  
Arrasate - Madrilako Olimpico, hilaren 26an, lagunarteko partidua arratsaldeko 4etan Garagartzan.

**Herri Kirolak**

Eguerdiko 12.30etatik aurrera aizkolariak eta harrijasotzaileak Zaldibarko frontoian, hilaren 22an.

**Futbola**

Emakumezkoak: Mondra - Zumaiako, larunbatean 3.30etan Atxabalpen.  
Lehen mailako jubenilak: San Andres - Baskonia, igandean 12etan Atxabalpen.  
Bigarren mailako kadeteak: Arrasate - Bergara, larunbatean 12etan Atxabalpen.

Infantilak: Arrasate - Beasain, larunbatean 10etan Atxabalpen.  
Haurrak: Arrasate - Aloña, igandean 10etan Atxabalpen.

**Saskibaloia**

2. mailako gizezkoak: Arrasate - Getxo, larunbatean Iturripen 7.15etan.  
Juniorrak: Arrasate - Iraurgi, igandean 12etan Musakolan.  
Jubenilak: Arrasate B - Zarautz, larunbatean 4etan Antoñan.  
Kadeteak: Arrasate B - Aloña, larunbatean 12etan Antoñan.  
Arrasate C - Bergara, igandean San Viatorren.

**Xakea**

Xake Txapelketa hilaren 19, 20 eta 21ean Musakolako kiroldegian, goizeko 10etatik aurrera.

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte eta ostiralez  
**5etatik 8etara.**

**Tfnoa: 79 26 99**

**Onduline**



**TXOMIN HERIZ**

eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18  
**ARRASATE**

**EPELDE**

argazki denda

Iturriotz, 24  
**ARRASATE**  
TFNOA: 79 19 71



# Hiru sukaldarien errezetak



**BISI BENGOA**

## Barazki menestra

Barazki menestra ongi prestatzeko, ezinbestekoa da osagarri guztiak banan egostea. Lekak, idarrak, baba beltza, azenarioa, patatak frijituta, azalorea eta txanponoiak. Albardatuta berriz, zarbaren berdea bolatxotan, penkak, alkatxofak eta tomate atalak.

Egosi edo albardatu ahala, dena kapatan ontzian ipintzen dira. Gainean, apaingarri, arrautza egosia, zainzuriak eta urdaiazpikoa, olio gizi baten pasatuta. Urdaiazpikoaz erabilitako olio gaitetik behera botatzen zaio.

## Basurdea

Garai-garaiko haragia da. Zatitu eta gero oliotan doratu behar da, larregi barik, bestela berehala beltzitzen da eta. Gero presioko lapikoan ipini eta ura, ardo beltz basokadaxo bat, eta coñac apur bat bota. Zaindu eta bigunduta dagoenean, atera.

Saltsa egiteko: kilo t'ardi kipula, 2 porru, 2 azenario eta berakatz atal batzuk. Apurka-apurka egin oliotan, eta salda apur batekin nahasi trituratu. Basurde okela dagoen ontzira gaitetik behera bota, eta irakinaldi bat eman.

Adornurako, urdaiazpiko dado batzuk eta txanpinoiak jartzen zaizkio.



**MARI TERE ALTUNA**

## Hojaldrezko pasteltxoak

Hojaldrezko pastelaren sekretua hojandrea bera da, eta horrek ondo irenez gero, kremaz, txokolatez zein nataz bete daitezke, nahi den forma emanda.

Hojaldrearen osagarriak:


- 400 gr. irin
- 400 gr. margarina
- 6 dl. ur gatz apur bat

Irinaren erdia marmolaren edo mahai garbi-garbiaren gainean jarri. Erdian zuloa egin eta gurin zati bat jartzen da, gatz apur bat eta ura. Masa ondo egin.

Ongi landu ondoren, mahaiaren gainean kolpe batzuk ematen zaizkio eta oreo oso fina dagoenean, gurutze bat egin eta 5 bat minututan deskantsatzen utzi. Ondoren, marmolean jartzen da irinaren gainean eta rodilloaz zabaldu, erdian gurina jartzeko pilatxo bat utziz. Mantekila gainean jarri, estali eta errodiloa gaitetik pasa, mantekilak alboetatik irten ez dezan kontu izanez.

Berriz ere zabaldu eta zapi bat balitz bezala tolestu, sendoera gutxirekin utziz. Ostera tolestu aurrekoan bezala, eta horrela lau aldiz. Ondoren nahi den adina denbora utzi atsedenean.

Labean 30 minutu inguru, azala doratu arte.



**FELIX URIBETXEARRIA**

## Patatak legatz-buruekin

8 laguntzat kilo bi patata. Legatz-buru bi, burua beti hobea da, patatari gusto handiagoa ematen dio eta. Kazuela baten uretan irekin erain eta hiru lau minututan atera eta hotziketan utzi plater baten; ura irakuten euki. Okela apartatu eta hezurak kazuelara bota ostera, arrain gustoa hartu dezan.

Ontzi baten, lurrezkoan bada hobea, berakatz ipini olioaz. Olio apur bat gorritzen denean, patata bota ataletan ipunitan eta doratu arte euki, buelta batzuk emanda.


Aurretik legatz buruekin egindako salda irazi eta gaitetik behera bota. Perrejila bota eta gainean, aurretik apartatutako arrain maminak gainean jarri. Gatza, nola geratu den ikusi eta gero botatzen zaio. Gero ordubete inguru irakiten euki eta gertu dago. Plater horrentzat ardorik aproposena, Errioxakoa.

## Menua






# ONDO



# PASARZU!



HIREI

SUKALDE OSOTUAK

Otalora Lizentziatua Tfnoa. 77 02 82 ARRASATE

SUKALDE ETA BAINUGELA, HORNIDURA.

NEURRIAN EZARRITAKO ARMAIRUAK.

ETXEBIZITZE-ERABERRITZEAK.

LAN-ZUZENDARITZA. DEKORAZIOA.



# Gaztaina ugari gure basoetan

**Rafael** Unamunok, Gesalibar auzoko Enuzketa baserrikoak, antzinako kontu asko gogoratzen ditu, eta kontatzeko grazia ederra ere badu. Udazken-negu garai honetan hain estimatua den jaki batez, gaztainaz, egin dugu berba.

Rafael mutikoa zela, orain pinuak bezala gaztainadiak zeuden hemengo basoetan; San Migeletan hasi eta urriaren akaberara, gaztainak batzen izaten zuten lan. “Gero gaixotasun bat etorri zan; normalien surretik etorten da, baina orduen nortetik etorri zan, eta hatzamarraren tamainuko ar batzuk zien, langosta esaten gutzen. Sustarrien sartu eta muna jaten dutze, eta holan igartu eitten die. Lau bat urtien gaztaña galant askuek igartu ein zien. Orduen inork ez zutzon kasurik ein, kimika asuntuen be atzeratuta egon eta. Gaur izan bazan, alto eraingo eutsien, kontra eitteko zerak egongo zien eta”.

Gaztaina zaharrak sutarako eraman eta pinua sartu eizen hemen inguru guztian. “Eta ha barik be arroinie etorren baserrira; gaur esniaz be ez da ataraten eta, erdikuek jaten daue diru asko”.



Rafael Unamuno.

Hemen gaztaina asko hartzen zen. “Aletan larogei anega iguel batzen gauen, eta gero koxkolien beste hogetamar bat burdi, bat az beste ehun anegatik gora”. Anega batek berrogeita bost kilo ditu. Ingururik onenetakoa Gesalibar ingurua zela esaten du Rafaelak.

## Gaztainak, merke

“Asko egon be eta merke saltzen zan. Frailietara be eruten gittuen burdixen hartute, eta hogetabat anega iguel ezta, eta hogeta bat duro, anegako durue izeten zan. Baina generalien Zarugaldeko Arkautzek erueten zittuen erre-bendero moruen Vittorixera.

Handik Andaluzia aldera eta saltzen zien”.

Etxean ere asko jaten ziren, jakina, beste ezer askorik egon ez eta. “Entradan, batzen gebitzenien, egositte jaten gittuen: zurittu, gatz puxkat eindde egosi eta gertu egoten zien. Gerotxueure onentxuek plazarako apartau eta erdi inguruok erreta jateko. Txiki txikiñek ganauei emuten gutzen. Gainien esnie edo porruiek eta patatak eta hala, orduko jana hori izeten zan”.

Gaztainak izen eta klase askotakoak daude: “gaztaña berdie, zubillagie, atalue, bixkai-gaztainie...Oin barririk sartzenttu beste genero bat, baine lengo gaztañie gozuaue zan. Silbestriek be bai, ederrak zien”.

Arbolak zaindu egiten ziren. “Adarrak zaharketan jakuenien ebai eta ensegida urteteutzien barririk. Pujak bota ezkeru emuten ekitten da, tiki taka. Urtien pedazo batzuk, sailien gobernetan zien. Orbela batu be eitten zan, ganauen azpikiek eitteko. Guk itxittako ondarrak batzen Gartzako neskatila mutikuek etorten zien, saldu eta zapata barririk erosteko.”

Udazkenean batu eta negu guztian, udaberrira artean, ondo kontserbatzen zen gaztaina. “Gauza estimatua da, usai gozue botaten dau, kafiek letxe, eta asko euki ezkeru, dirue ein leike gaztañiaz”.

**BASABE JATETXEA**

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84  
ARETXABALETA

**K**abia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28  
ARRASATE Tfnoa: 79 27 70



ASTRONOMIA

ILARGIA,  
PERRETXIKOAK,  
GABONAK...

# Mikolasen astoa eta Osinaldeko Joxanton (I)

Ilargiak badu bere garrantzia, eta izan du lehenago, batez ere euskaldunontzat. Hilabete hitzak astebaterako argi adierazten du. Ilargiak bere aldi osoa burutzeko behar duen denbora dela.

Zer esanik ez itsasgora eta beherarekin. Denok dakigunez, itsas mailaren aldaketa hauek, ilargiarekin grabitazioaren erakarpen indarrak sortuak dira batez ere.

Perretxikutan ibiltzen garenok ere, ondotxo dakigu ilargiaren eragina zenbaterainokoa den. Eguzkiaren garrantzia ahaztu barik noski. Ilargia, euria, eta dena alde eduki dezakegu, baina gabonetan (eta gabonak noiz datozen eguzkiak agintzen du) ez dugu gibelurdinik jasoko.

Zuhaitzak inausteko ere gomendagarria da ilbeheran egitea, aldi honetan ilargiaren eta eguzkiaren erakarpen indarrak ez dute batera eragiten, eta zuhaitzen barruan dauden izerdi eta sustantziak, ez daude adar eta hostoetan, enbor eta sustraietan baizik.

ERNEST BORN

**Osinalde** baserri bikotea erregebidetako ur-urtean aurkitzen da, etxeko hormatik bertatik dihoan ibaia igarotzeko zubia bitarteko duela. Hangoxeak ziren, behin baten, Joxanton eta aldeko edo beste etxeko Martiñ. Hau, jorraitaren lehengotan iragintza edo trozuetara urrutiratzen zen eta hurrengo Gabonak arte ez zen etxeratzen. Joxanton, berriz, bere aitaren baserrian aritzen zen, auzoko Joxpiñaxirekin eten gabeko maite kontuetan ari ez bazen behintzat. Hainbeste maite zuten elkar! Baina Gabonetatik hasi eta hurrengo april arte, urte guztiko gozamenak garrastan zitzaizkion. Bai ba, Martin auzoratzan zenean, bestetako neskatila guztiak euliak eztera bezala inguratzen zitzaizkion eta neskatzen kutizi guztiak esku zabalez ordainduaz gainera, behin baino gehiagotan ikusi omen zioten urte begigorriaren ertz makurra. Behin edo behin, Joxpiñaxi bera ere nabaitu zuen harixe hurbiltzeko irrikatuta. Joxantonek, berriz, aitak emandako pagatik ez zeukan horrelako milagrorik egiterik.

Feri egun baten, Joxantonek ikusi zuen Martin mutil batzuekin hizketan trozuetako lanbide, aloger eta abarrez zihardutela eta berarekin

udaberrian joan nahi zuena hizkatu edo kontratatzen, eta Joxantonek, alderaturik, esan zion ea mutil gehiagorik beharko zuen.

— Lau bat edo sei bat eramateko agindu zidak hango katapazak eta oraindik hiru besterik ez diat hizkatu. Hi ere eramango haut, hitz ematen badidak.

— Konta ezak nirekin ere.

— Jaso al diguk hango bizimodua, alogera eta zertzelada guztiak?

— Bai, dena entzut diuzet. Konta ezak nirekin.

Hurrengo jorraileko lehengoan irten ziren gure mutilak Guadalajararako bidean, joan eta joan, beti oinez eta handik zortzi egunetara iritsi ziren. Herri bertako zubi eder bat jasotzen hasi ziren, hargarrenean egunean.

Bai gure Joxantonek lana gogotsuegin eta zintzo jokatu ere! Ama Birgina Sortzez Garbi egunerako berak ere bazituen ontzako

banaka batzuk aurreratuak. Bere Joxpiñaxi ikusteko hortzetatik adurra zeriola zegoen. Hala beharrez, lehengoko aldra txiki batek, nagusiari kontua eskatu, kitarra, pandero, dultzaila eta abar bidea alaitzeko erosi, eta honutzakoari eman zion egun haietan bertan.


(Jarraituko du)

ARREGITAR TIBURTZIO



**Lore** lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118



# B

eharbada mondragoetar gazteenek entzuterik ere ez badute ere, oraingo Santamasa eta garai batekoak ez dira berdinak. Orain ez da halakorik egiten, baina orain 64 urte, 1929ko abenduaren 22an, tanborrada eta karroza antolatu zen mondragoeko kaleetan, eta horren lekuko da erretratu hau. Zentro Katolikoak antolatu zuten; hasieran Zentro horretako orfeoiak așmo hori zuela eta ez zuela zurrumurrua zabaldu ei zen Santa Luzia egunean, eta azkenean baita egin ere.


Erreginarena egin zuena, erdian eserita dagoena, **Maria Josefa Etxabe** izan zen. Bere alboan dauden dama biak, **Asunzion Arizaga**, erreginarena eskuman eta **Benedikta Ezkurra** beste aldean.

Behean, **Maritxu Mendizabal** orain Ameriketara bizi dena, eta **Felisa Heriz**, Iturbide Egoitzan dagoena. Karrozaren aurrekaldean eserita, paje jantzita ageri dena, **Mendikute**.

Talde horretan parte hartu zuten, esan digutenez, besteak beste, **Kontxita**

**Sainz, Julia Arabaolaza, Berezibar** Errekaldenekoak eta **Luzia Arenazak** ere. Erregina eta bere taldeaz gain, Kantinerak, Barrilerak, Tanborreroak eta Antortxeroak ere joan ziren. **Joxe Uriarte** izan zen

denen kapitain. Ibilbidea: Zentro Katolikotik irten, Erdiko Kaletik Estaziño bidera, eta handik etxe txikietatik pasatuz Maalatik bueltan plazara. Urte bakarrean egin zen tanborrada hori Santamasetan.



**Zarraoa**  
**ESTETIKA ZENTRUA**  
 Lurrundegia, opariak, jostailuak  
 Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

Altzariak  
 Diseinua  
 Apainketa  
**M ARENAZA**  
 Bizkai, 1 ARETXABALETA  
 Tfnoa: 79 08 07

**LUR**  
 Lehenengo euskal Hiztegi  
 Enziklopedikoaren aurkezpena Maxi Eroskin 18 eta 19an.  
 Ez galdu aukera!



rain 9 bat urteko erretratu dugu hau, Alkartu Elkarrekin antolatutako Olentzeroarekin ateratakoa. Normalean baino pertsonaia gaztetxoagoak dauzkagu, oraindik ere oso gazteak direnak. **Gregorio Orobengoa** izan zen Olentzero, eta bere inguruan, lurrean eserita ezkerretik hasita: **Oihana Caballero, Iraia Urrutia, Jon Muruamendi** araz, **Galder Gutierrez, Koldo Balanzategi, Aitzol Arze** eta **Iraitz Urrutia**. A-tzean zutik ezkerretik, **Olatz**

**Orobengoa, Naiara Guridi, Iratxe Hernandez, Guridi** eta **Hernandez** deiturako beste bineska-mutiko, **Mireia Muruamendi** araz, **Oxel Urrutia, Amos Elbira** eta **Edurne Elbira, Eider Gutierrez, Nerea Azkonaga, Asier Otadui, Naiara Arze, Igor Otadui, Olaia Balanzategi, Maite Azkonaga, Jone Arizabaleta, Ainhoa Orobengoa, Zior-tza Arizabaleta** eta **Mikel Orobengoa**.

### Zuzenketa

Aurreko asteko ARRASATE PResSEN egin genuen hankasartzea zuzentzera gatoz. Erretratuan agertzen zen hirukotean, Alejandro Etxebarria Uribetxebarriari gaizki jarri genion apelidua eta Frantzian hil zela jarri genuen gainera. Denbora baino lehen hil dugula esan digute, oraindik bizi baita. Barkamena eskatzen diogu, beraz, eta zuzenketa egin duguten irakurle finei, mila esker.

**Informazioa nahi baduzu zure esku duzu gure laguntza.**



**"Bezeroaren telefonoa"**  
**901- 20 20 20**

Edozein zalantza konponduko dizugu:

- Hornidura-eskabidea
- Kontratazioa: altak, bajak, aldakuntzak
- Ordainagiriaren gaineko argibideak
- Ordainagiriak banketxean helbideratzea
- Kontadore irakurketak hartzea

Eta behar duzun beste edozer kontsulta edo informazio.

**IBERDROLA**

**GOI MAILAKO BITXIAK ETA ERLOJUAK**

*Eskaintzen dugun produktuaren kalitatea da gure diztira. Akabera bikaineko bitxiak, diseinurik moderno eta dotoreenaz eginak.*

**NAROKI**

Erdiko kale, 23  
Tfnoa: 79 20 47 ARRASATE

# Opari ona: liburu on bat

Liburu beti izaten da opari on bat, bai egiteko eta baita jasotzeko ere. Gabonak, berriz, opari gehien egiten den garaia. Libururen bat oparitzeko asmoa duenaren izat baliagarri izango delakoan, hainbat titulu gomen-dagarri ondoren:

## 2 edo 3 urtetik aurrera

- Mc PHAIL, D.: "Nire lehenengo hegaldia". Madrid: Montena, 1988.
- STEADMAN, R.: "Hau nire aita da". Barcelona: Aliorna, 1987
- VINCENT, G.: "Zesar eta Ernestina". Barcelona: Timun Mas, 1982.

## 4 urtetik aurrera

- "Ahate bihurriarenak". Donostia: Erein.
- Aipagarrienak:  
"Doña Karmen"  
"Itsasoan galdurik"

## 5 urtetik aurrera

- "Lehen Ttanttak" bilduma. Eskoriatza: Ihardun, 1990.
- "Txikien mundua". Barcelona: Noguera, 1987.

## 6 urtetik aurrera

- ALCANTARA, R.: "Untziaren hegada". Donostia: Elkar, 1990. Leiho saila.
- LOBEL, A.: "Igel eta Ugelekin eguna igaroz". Bilbo: Desclee de Brouwer, 1989.
- LOBEL, A.: "Igel eta Ugel adiskideak dira". Bilbo: Desclee de Brouwer, 1990.
- LOBEL, A.: "Igel eta Ugel banaezinak". Bilbo: Desclee de Brouwer, 1991.



## 8 urtetik aurrera

- CERMEÑO, X.: "Larunbat arratsaldean". Donostia: Elkar, 1991. Txalupa saila.
- ETXANIZ, X.: "Gola, Katu trapezista". Iruñea: Pamiela, 1990.
- LANDA, M.: "Kleta bizikleta". Donostia: Elkar, 1990. Per-kax saila.
- LANDA, M.: "Irma". Donostia: Elkar, 1990. Txalupa saila.
- ORAM, H.: "Idoia eta Arazolaria". Donostia: Ttarttalo/Tmun mas, 1991. Kotoizko hodeia saila

## 10 urtetik aurrera

- DAHL, R.: "Sorginak". Donostia: Erein, 1990. Auskalo saila.
- EDMONDSON, M.: "Ana Sorgin". Donostia: Elkar, 1992.
- GARMENDIA, X.: "Beltza! Beltza!". Donostia: Erein, 1990. Auskalo saila.
- HARTLING, P.: "Benek Anna maite du".

Donostia: Elkar, 1990. Itzul saila.


## 12 urtetik aurrera

- CARROLL, L.: "Aliciren abenturak lurraldi miresgarrian". Iruñea: Pamiela, 1991 Itzul saila.
- GRIPE, M.: "Hugo". Arrigoriaga: S.M., 1991. Baporea saila L
- HAUGEN, T.: "Gautxoriak". Donostia: Elkar, 1990. Itzul saila
- LERTXUNDI, A.: "Sardina ezpain gorriaren kasua". Donostia: Erein, 1989.

## 14 urtetik aurrera

- AITMATOV, T.: "Lehenengo maisua". Donostia: Elkar, 1991. Branka saila.
- ATXAGA, B.: "Behi Euskaldun baten memoriak". Iruñea: Pamiela, 1991.
- BARKHOUSE, J.: "Port La-joyeko sorgina". Donostia: Elkar, 1990. Branka saila.

**ESKORIATZAKO IRAKASLE  
ESKOLAKO HAUR LIBURU  
MINTEGIA**



Saioa Fernandez,  
2 egun.  
Mondrautarra.  
**ORAIN AMAREN  
BULARRETIK  
EDATEN DU...**

# **AE ELKORO**

Olarte, 1

## **DENDA**

OLARTE, 1  
TFNOA: 79 18 86

- SONY
- PANASONIC
- PHILIPS

**BANATZAILE OFIZIALA**

## **BIDEO- KLUBA**

MAALA, 31

- PELIKULEN ALOKAIKURUA  
ETA SALMENTA
- BIDEO-JOKOAK:  
NINTENDO, ZAGA...

**OSAGARRI GUZTIAK**

## **ZERBITZU TEKNIKOAK**

MAALA, 29  
TFNOA: 79 45 99

- SISTEMA ELEKTRIKOAK
- KONPONKETAK: TB, BIDEOA,...
- ATEZAINAK
- ANTENAK

# **EGUBERRI ON!!**

Aukera ezazu 2 zifrako zenbakia eta gabonetako loteriako sari nagusiaren  
bukaerarekin bat badator  
**EROSITAKOAREN DIRU KOPURU OSOA ITZULIKO DIZUGU**  
Azaroaren 16tik abenduaren 21era.

2.000 PTAtik gorako erosketa guztiak sartzen dira jokoan.  
Jarritako egunen barruan egindako eta  
ordaindutako erosketarako bakar-bakarrik

# Gabonetako egitaraua

## Abenduak 18 Eguakotza

• Arratsaldeko 7etan, Monterronen *Jokin Zaitegi VI. Itzulpen labor* eta *Arrasate 92* lehiaketan sari banaketa.

## Abenduak 19 Zapatua

• 10etan, Iturripen Santamas XIII. Pilota Txapelketako azkena.

• 5.30etan, Herriko Plazan *Zuentzat* taldearekin dantzaldia.

• 7etan, Harresi Aretoan *Julio Galartaren Pintura Erakusketa*ren inaugurazioa.

• 8etan, San Frantziskn *Goikobalu Abesbatza* eta *San Frantzisko Xabier ikastolako Abesbatza*rekin kontzertua.

• 10etan, Musakolan rock jaialdia, *Soziedad Alkoholika*, *Parabellum* eta *Baldin Bada*.

## Abenduak 20 Domeka

• 11etan, Santamas XIV. Krosa.

• Ordubatetan, Seberon Arrasateko II. Binakako Arin-arin eta Fandango txapelketa.

• 7etan, *Eguzkirekin* dantzaldia.

## Abenduak 21 Astelehena

• 11etan, *Euskal Liburu eta Disko Azoka* zabalduko da Sebero Altube Plazan, abenduaren 24ra arte.

• 5.30etan, Herriko Plazan *Biekarekin* Kale-Antzerkia.

• 7etan, Arrasateko Kiliki eta Erraldoien kalejira.

• 7etan, Santamasetako txerriaren aurkezpena.

• 7.30etan *Incansables* eta trikitilariekin kalejira.

• 11etan, dantzaldia *Joselu Anaia* taldearekin.

• 12etan, Arrasateko dultzainariekin kalejira eta Herriko Plazan zezen suzkoa.

## Abenduak 22 Martitzena

• 9.30etan, Dultzainari eta txistulariekin diana.

• 10etan, Azokan, Fruitu, Barazki, Hegazti eta Untxi eta Gazten Lehiaketa, erakusketa eta salmenta.

• 10etan, Nafarroa Etorbidetan, Nekazal Makineriaren Feria.

• 11etan, Herriko Plazan, Artisau-lanen erakusketa.

• 11etan, kalejira, Arrasateko *Lore Gazteak* eta *Arrostaitz Dantza taldeak*, dultzainari, txistulari, trikitilari eta koplariekin, *Iturengo tuntuuroak*, eta *Incansables* txarangarekin.

• 11.30etan lehiaketan sari banaketa.

• 12.30etan, Herriko Plazan, txalaparta saioa.

• 12.30etan, Zaldibar pilotalekuan, *Gibitegi* harrijasotzailea.

• 1.30etan, plazan Arrasateko folklore talde guztien saioa.

• 2.30etan, kiroldedean, Herri Bazkaria, txaranga, bertsolari eta trikitilariak alaiturik. Txartelak AED, Hire, eta Monten.

• 7etan, Alain bertso saioa: *Andoni Egaña*, *Imanol Lazkano*, *Jon Iñaki Izarzelai* eta *Aitor Sarasua*. Gai-jartzailea: *Jon Sarasua*.

• 7.30etan, *Incansables* txarangaren kalejira.

• 8.30etan, Herriko Plazan larrain dantza.

• 11etan, dantzaldia *Gaubelarekin*.


• 12etan, txerriaren zozketa.

## Abenduak 24 Eguena

• 12etan, *Txoronpio*. Arratsaldeko 6etan, *Olentzeraren* irteera. Ibilbidea: Ferrixalekua, Maala, Portaloia, Olarte, Zarugalde, Udala Plaza, San Andres, Portaloia eta Herriko Plaza.

• 7.30etan, Herriko Plazan Olentzeroren agurra.

• *Santamas komisiñuek jaia zuzenean bizitzeaz gain, base-ritar jaztea eskatzen dizue.*



... LASTER OINEZ  
IKASIKO DU.  
GERO,  
BERBETAN HASIKO  
DA, ETA...




# ZER NAHIAGO?

## Txoronpio

### Olentzeroren mezulari

- **Zenbat urtetan batu dizkiozu gutunak Olentzerori?** Puf! Urte askoan. Izango dira 8-10 urte behintzat.
- **Umeek bakarrik idazten dituzte gutunak?** Lehen bai, baina gero eta nagusi gehiago animatu da eta hori oso ondo dago.
- **Orokorrean Arrasateko umeak zintzoak ala bihurriak dira?** Eurak esaten dute onak direla, baina denetik egongo da. Batzutan gaizto xamarra izatea ere ez dago gaizki.
- **Denek merezi dute oparia?** Bai, zerbait jasoko dute behintzat.
- **Norbaitek jasoko du ikatzik?** Bai, urtero jasotzen du norbaitek ikatz goxoa.
- **Gabonak gustatzen?** Bai, familiar eta giro goxoa egoteko giro egokia izaten da.
- **Eta Santamasak?** Bai, dudarik gabe, urteko jairik politenak dira.
- **Jango duzu turroirik?** Bai, gogorra batez ere, asko gustatzen zait.
- **Eta txanpanik edango duzu?** Bai, Maritxu Kajoikoa gainera.
- **Non batuko dituzu gutunak?** Orain arte zaku baten jaso ditut, baina txiki geratu zait.
- **Moderno ala klasikoa zara?** Auskalo. Beno, klasikoa esango nuke.
- **Zeuk Erreegi ala Olentzerori eskatzen diozu oparia?** Olentzerori, noski.
- **Zuk zer eskatuko diozu?** Eskatu gauza asko, baina ikusi egin behar zer botatzen didan.
- **Bizarra ala bigotea?** Bizarra, Txoronpiok bizarra erabiltzen du.
- **Zer oparituko zenioke ume bati?** Jolasten ikasteko, garapena lortzeko eta imaginazioa pizteko zerbait.
- **Humore ona duzu?** Uste dut baietz.
- **Egingo du elurrik Gabonetan?** Bai, aurtan ziur.



## BERTSOAK

### SANTAMASAK

1  
Berrito ere iritsi dira  
Arrasaten Santamasak  
pasako ditte juerga batean  
egun eta baita gauak  
ahal baldin bada lagun deigula  
guztioi umore onak  
penetarako denbora bada,  
ahaztu ditzagun danak.

2  
Hogeitabian baserritarrez  
jaztea da gomendatu  
zahar ta gaztentzat ekintza asko  
dira jada antolatu  
eta horrela ahal den ondoen  
euskal jai hauek pasatu  
baina ez ahaztu, lagun artean  
denok euskaraz mintzatu!

### LEIRE GOROSTIZA



## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

### Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala  
(Psikomotrizitatea eta  
hizkuntz berreziera)  
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola  
arazoak, enuresia  
(Ohe bustitzea),  
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
Tfnoa: 79 48 77  
ARRASATE



## Ruth GATZAGA Jatetxea

Olarte kantoia, 3  
Tfnoa: 79 59 57  
ARRASTE

IGANDE  
EGUERDIETAN ERE  
ZABALIK!

**Laneko bazkariak  
Lagunarteko askariak  
Bikoteentzako afariak**

**Giro ona, sukalde ona eta  
familiako tratua**

**GURE BEREZITASUNA:  
SASOIAN SASOIKO  
PERRETXXIKOAK**



# Liher Larrea

## Santamasetan, trikitilariak ere kalean

Orain bi urte, Arrasateko trikitilari, gaitero, dantzari eta beste taldeak, Santamasetako jaietan zuzenki parte hartzen hasi ziren. Aurten ere, hainbat ekintzatan kalean izango ditugu.

— Ze ekintzatan hartuko duzue parte Santamasetan?

— Santamasetako egun nagusian, hau da, asteartean ia egun osoa kalean emango dugu. Goizean azokan batez ere, eta baita kalean, tabernetan eta antolatutako ekintza konkretuetan ere.

— Ze taldek irteten duzue kalera?

— Segun zertarako den, baina Santamasetan konkretuki oso talde handia ibiliko gara. Trikitilari eta pandero jolarien artean, guztira 30-40 lagun inguru izango gara. Jai nagusienetan, Santamasetan eta San Juanetan esate baterako, talde handia izaten gara baina beste ekintza edo jai batzuetarako kopuru



handiegia da, horregatik talde txiki batek irteten dugu edo taldeka banatzen gara, toki desberdinetan joz.

— Jo bakarrik ala abestu ere bai?

— Momentuz jo bakarrik egiten dugu, baina duela gutxi kantu ikastaroan hasi gara, eta jotzearekin batera

abestea da helburua. Baina abesteak soinua eta panderoa menperatzea eskatzen du eta horregatik beste maila baten kokatuko nuke kanta. Bestalde, kalean, jende artean jotzen dugunean, abestu arren, askotan ez da entzuten eta jende asko behar izaten da ondo kantatzeko. Hala ere,

momentuz ezin daiteke esan zer egingo dugun, ikusi egin beharko da nola doazen ikastaroak.

— Arrasateko beste taldeekin baduzue harremanik?

— Bai, urte osoan zehar izaten ditugu eta jai nagusienetan, ekintza batzuetan batez ere, dantzari, txistulari, gaitero eta abar, elkarrekin irteten dugu kuadrila bezala. Santamasetan ere, 22an denok ibiliko gara.

— Trikitilari berri asko sartu da taldean?

— Bai, interesa gero eta handiagoa da. Aurten ere gazte asko sartu da. Hala ere, esan beharra dago batzuk etxean behartuta sartu direla eta denborarekin hori igarri egiten da. Horregatik, beharrezkoa da norberari gustatzea eta norberak aukeratua izatea "trikitilari izan nahi dut", ondo ikasteko bide bakarra da.



... ETA IKASTOLARA JOANGO DA...  
SAN FRANTZISKO  
XABIER IKASTOLARA,  
JAKINA!

KASTOLA  
JAKINA



**LEHIAKETAK**

**AEDko  
Lehiaketan  
irabazleak**

AEDko lehiaketetako finalistak izenak ezagutzen dira dagoeneko:

**Ipuina**

J. Luis Lopez, Asier Etxaniz, Maider Leturiaga, David Urrutia, Nagore Martinez, Nerea Gorosabel, Beñat Otxoa, Leire Lardizabal, eta Saioa Esnal.

**Bertsoak**

Jon I. Izarzelai, Amaia Agiriano, Ainhoa Agirre-zaldegi, Saioa Arando, Maider Osa, Zuhaitz Herrero, Eshine Landare eta Jokin Egurbide.

**Poesia**

Asier Etxaniz, Xabier Altube, Patrizia Sagasta, Lorea Arantzeta, Lur Zubiaga eta Olaia Agirrezabalaga.

**Diapositibak**

J. M. Etxeberria, Joxe Otadui eta Jon Ruiz de Zarate.

**Argazkiak**

J. L. Azkarate eta Aner Arregi.

**Bideoa**


Roberto Mendi.

**Komikia**

Mario Egues.

**Itzulpena**

Joseba Ossa eta Imanol Unzurrunzaga.



Liburu eta diskotan aukera zabala izango da Frantziskotarren lokalean.


**Lau egunez Azoka zabalik  
Sebero Altubeko lokaletan**

Astelehenetik ostegunera, Frantziskotarrek Sebero Altuben duten aretoan, beste urte batez, AEDk antolatutako Liburu eta Disko Azoka jarriko da. Hilaren 21, 22 eta 23an Azoka zabalik izango da goizeko 11etatik eguerdiko 2etara eta arratsaldeko 5.30etatik iluntzeko 9etara. Hilaren 24ean, berriz, goizez 11etatik 2etara egongo da zabalik eta arratsaldez, Gabon bezpera izanik, 5.30etan zabaldu eta 7.30etan itxiko da.

Durango burutzen dena baino askoz txikiagoa izanda ere, Frantziskotarren aretoan jartzen den Azokan nobedaderik aipagarrienak, zein la-

nik interesgarrienak aurkitu ahal izango dira.

*Behi euskaldun baten memoriak, Adrian Moleren egunkari ezkutua* edo eta *Ez ezazu sardinarik eskatu garaiz kanpo* bezalako titulu ezagunak hor izango dira salgai. Edozein adinetarako liburu egokiak salgai, beraz,



**“Nobedade  
aipagarrienak  
eta lanik  
interesgarrienak  
bertan salgai”**

AEDk antolatzen duen azoka honetan.

**Velez de Mendizabalen  
Yehuda**

Ezin ahaztu azkenik, Josemari Velez de Mendizabal arrasatearrak oraintxe kalderatu berri duen *Yehuda* izenburuko liburua, *kaleko jendeak erraz irakurriko duen liburua* bere esanetan. *Yehuda* erosi edo erosten dute nentzat sorpresa dauka Josemari Velez de Mendizabalek, hilaren 23an arratsaldeko 6etatik 8etara Seberon izango baita, aurrean jartzen dizkioten liburu guztiak sinatzeko prest.

**MIREN**  
**APAINDEGIA**  
Zarugalde, 23-2. Ezk.  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 96 90

**OSORIK  
PUB**  
Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE


**Plus Ultra  
taberna**  
Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 57

**LUR**  
Argitaletxearen  
**Hiztegi  
Enziklopedikoa**  
Gure Enziklopedia!

• ESAERA ZAHARRA •

“Eguberritan eguzkia,  
pazkoetan elurra”

• JEROGLIFIKOA •



Gazteluaren inguruan

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10			11				
12		13					
14							
15					16	17	
19					18		

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Nolabait. 9. Herriaren izen berdineko paselekua. 10. Barioa. 11. Erakuslea. 12. Ibilaldia. 14. Askea. 15. Bilo. 16. Ezer ere ez. 18. Kilogramoren laburdura. 19. Ukitu aditzaren infinitiboa.

**Bertikalak** 1. Irekirik. 2. Usatu. 3. Txakur. 4. Adintsu. 5. Esaten duena. 6. Goratu. 7. Kanpo. 8. Mainontzi. 13. (Ald.) Jakoben 3. semea. 17. (Ald.) Kontrol-unitatea.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Hobe duzu Santamasetan baseritarren jantzia soinean eramatea. Bestela...

**Taurus** Txerri gizena 005030 zenbakia tokatuko zaiola esan du azti batek.

**Gemini** Aurtengo txerriak aurreko urteetako marka guztiak gaudituko ditu kilotan.

**Cancer** Harri borobildua jasotzen duenak miloi erdi PTako saria eskuratuko du.

**Leo** Baserritarren jantzia soinean ez darmanak mila pzta-ko isuna jaso dezake.

**Virgo** A ze nolako opariak 100 pta-ren truke Santamasetako zozketan!

**Libra** “Gizendu jaku txarria, saltoka dabil herrixa!”

**Scorpio** Fruitu eta barazki azokako lehen saria ilehori batek eskuratuko du.


**Sagitaris** Santamasetako txerrik bezalako mitxelinak dituzu.

**Capricorn** Norbaitek txerriarekin parkeatu zaitu. Zergaitik ote?

**Aquarius** Espero ez duzun bezalako zoria izango duzu jaietan.

**Piscis** Asteartean goizeko 1 letan txerria furgoneta dagoen lekuan duzu zita.


- KOLTZOIAK
- MANTAK
- IZARAK
- EDREDOIAK
- KURTINAK
- PERTSIANAK
- NORDIKOAK



LASAI  
KONLTXOIDENDA

Ferrerias, 28 ARRASATE  
Tfnoa: 77 08 11

· JUSTO GURRUTXAGA "URTAİN"EN GOMENDIOA ·




Urtainek oso gustoko ditu Santamasa, "ilusio handiz disfrutatzen ditut eta Mondragoeko jendea oso jatorrada". 15 urte inguru daramatza urtero urtero Lajarekin batera panderoa joz, gustora. "Kalera irten eta animatzea eskatuko nioke jendeari, parte hartu eta trikitrixaren inguruan biltzea". Plaza zoragarria, eta feria oso ona iruditzen zaizkio eta ganaduak ikustera joatea eta bertso-saiora ere animatzea gomendatuko lioke mondragoetarrari.

· PROGRAMAZIOA ·



- 19 Larunbata**  
4.00 Pareak Jokuan  
4.30 ATBketan
- 20 Igandea**  
7.30 ATB Pub  
8.00 Monterock  
8.30 Mondragol
- 21 Astelehena**  
1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Bai horixe! Follow me  
7.30 Dokumentala  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 Mondra Sport  
10.00 Zinea: Gabon Kanta.
- 22 Asteartea**  
8.00 Programa berezia: Santamasa 92.
- 23 Asteazkena**  
1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Bai horixe! Follow me  
7.30 Dokumentala  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 Tertulixan.  
10.00 Zinea: Gabon Kanta.
- 24 Osteguna**  
1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Bai horixe! Follow me  
7.30 Dokumentala  
8.8.30.9 Berriak
- 27 Igandea**  
9.00 Mondragol
- 28 Astelehena**  
1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Bai horixe! Follow me  
7.30 Dokumentala  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 Mondra Sport  
10.00 Zinea: NIMH.
- 29 Asteartea**  
1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Bai horixe! Follow me  
7.30 Dokumentala  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 ATB Pub  
10.00 Zinea: NIMH

· KOMIKIA ·




· SOLUZIOAK ·

HARRAIA  
 JEROGIFIKOA  
 Ar. 8. Negart. 13. Ibel. 17. UK.  
 Or. 4. Zahar. 5. Esale. 6. Laudatu. 7.  
 Bertikalak 1. Zabaliak. 2. Erabili. 3.  
 19. UK.  
 14. Libre. 15. Ite. 16. Tur. 18. Kilo.  
 sare. 10. Ba. 11. Hau. 12. Abialdia.  
 Horizontalak 1. Zozelan. 9. Arra-  
 GURUTZEGRAMA

**TXOKO  
TABERNA**

Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak


Otatora Lizentziatua z/g Tfnoa: 79 20 10



**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPAETAPINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE



# FELIZ OPEL NUEVO

ORAINDIK GABON  
HAUETAKO GAUZARIK  
ONENA IKUSTEKO ZAUDE:  
OPELen AUKERA ZABALA.  
HURBIL ZAITEZ ZURE  
OPEL KONTZESIONARIORA  
ETA ZEURE BEGIZ IKUSI:  
ALAITASUNEZ BETETAKO OPEL  
FAMILIA. GABON HAUETAN,  
OPEL BERRI ZORIONTSUAK.

OPEL 



MCCANN

## TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako

kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAn

## TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK ESPERIENTZIAZ.